LEGEAK 21 LEYES

# Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra

# Estatuto General de la Abogacía Española

LEGEAK
LEYES

*CIP. Unibertsitateko Biblioteka/Biblioteca Universitaria*

**España. Ministerio de Justicia.**

Espainiako abokatutzaren estatutu orokorra [Recurso electrónico] = Estatuto general de la abogacía española / Ixusko Ordeñana Gezuraga …[et al.] ; Patxi Petrirena Altzuguren, itzultzailea. – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2018]. – 1 recurso en línea : PDF (132 p.). – (Legeak = Leyes ; 21)

Texto bilingüe en euskara y español.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-9082-953-0

1. Abogados – España. I. Ordeñana Gezuraga, Ixusko, coaut. II. Petrirena Altzuguren, Patxi, trad. III. Título: Estatuto general de la agogacía española.

(0.034)347.965(460)(094)

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
www.ehu.eus/argitalpenak - editorial@ehu.eus

Fotokonposizioa/Fotocomposición: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

ISBN: 978-84-9082-953-0

# ESPAINIAKO ABOKATUTZAREN ESTATUTU OROKORRA

---

# ESTATUTO GENERAL DE LA ABOGACÍA ESPAÑOLA

Ixusko Ordeñana Gezuraga
Iñaki Esparza Leibar
Patxi Etxeberria Guridi
Katixa Etxebarria Estankona
Goizeder Otazua Zabala
Miren Josune Pérez Estrada
*UPV/EHUko Zuzenbide Prozesaleko irakasleak*

Patxi Petrirena Altzuguren (Elhuyar Fundazioa)
*Itzultzailea*

Joseba Ezeiza Ramos
*UPV/EHUko Euskara Zerbitzua*

Ana Leturia Navaroa
*UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko irakaslea*
*Bildumaren koordinatzailea*

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

# ÍNDICE

# AURKIBIDEA

**Prólogo.** El abogado, el derecho a la defensa y el estado de derecho, *Iñaki Esparza Leibar* . . . . . . . . . . 10

**Estatuto General de la Abogacía Española** . . . . . . . . . . 15

Título I . . . . . . . . . . 16

Capítulo único. De la abogacía y sus organismos rectores . . . . . . . . . . 16

Título II . . . . . . . . . . 18

Capítulo I. De los Colegios de Abogados . . . . . . . . . . 18

Capítulo II. De los abogados . . . . . . . . . . 26

Sección 1.ª Disposiciones generales . . . . . . . . . . 26

Sección 2.ª De la colegiación . . . . . . . . . . 28

Sección 3.ª Prohibiciones, incompatibilidades y restricciones especiales . . . . . . . . . . 38

Sección 4.ª Ejercicio individual, colectivo y multiprofesional . . . 44

Título III. Derechos y deberes de los abogados . . . . . . . . . . 50

Capítulo I. De carácter general . . . . . . . . . . 50

Capítulo II. En relación con el Colegio y con los demás colegiados . 54

Capítulo III. En relación con los Tribunales . . . . . . . . . . 56

Capítulo IV. En relación con las partes . . . . . . . . . . 58

Capítulo V. En relación a honorarios profesionales . . . . . . . . . . 60

Capítulo VI. En relación con la asistencia jurídica gratuita . . . . . . . . 62

Título IV. De los órganos de gobierno de los Colegios y del régimen económico colegial . . . . . . . . . . 64

Capítulo I. De los órganos de los Colegios . . . . . . . . . . 64

**Hitzaurrea.** Abokatua, defentsa-eskubidea eta zuzenbide-estatua, *Iñaki Esparza Leibar* . . . . . . . . 11

**Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra** . . . . . . . . 15

I. titulua . . . . . . . . 17

Kapitulu bakarra. Abokatutza eta hura gidatzen duten organoak . . . 17

II. titulua . . . . . . . . 19

I. kapitulua. Abokatu-elkargoak . . . . . . . . 19

II. kapitulua. Abokatuak . . . . . . . . 27

1. atala. Xedapen orokorrak . . . . . . . . 27

2. atala. Elkargokide egitea . . . . . . . . 29

3. atala. Debekuak, bateraezintasunak eta murriztapen bereziak . 39

4. atala. Bakarkako jarduna, jardun kolektiboa eta jardun multiprofesionala . . . . . . . . 45

III. titulua. Abokatuen eskubideak eta betebeharrak . . . . . . . . 51

I. kapitulua. Izaera orokorrekoa . . . . . . . . 51

II. kapitulua. Elkargoari eta gainerako elkargokideei dagokienez . . . . 55

III. kapitulua. Auzitegien inguruan . . . . . . . . 57

IV. kapitulua. Alderdiei buruz . . . . . . . . 59

V. kapitulua. Ordainsari profesionalei buruz . . . . . . . . 61

VI. kapitulua. Doako laguntza juridikoari buruz . . . . . . . . 63

IV. titulua. Elkargoetako gobernu-organoak eta elkargoen araubide ekonomikoa . . . . . . . . 65

I. kapitulua. Elkargoetako organoak . . . . . . . . 65

Capítulo II. De la Junta de Gobierno . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 64
Capítulo III. De la Junta General y la Asamblea Colegial . . . . . . . . . 74
Capítulo IV. Del régimen económico colegial . . . . . . . . . . . . . . . . . 82

Título V. De los Consejos de Colegios de las Comunidades Autónomas 84
Título VI. El Consejo General de la Abogacía Española . . . . . . . . . . . . . 86

Capítulo I. Órganos y funciones . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 86
Capítulo II. El Pleno del Consejo General . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 94
Capítulo III. La Comisión Permanente . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 102
Capítulo IV. El Presidente . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 104

Título VII. El Congreso Nacional de la Abogacía Española . . . . . . . . . . 106
Título VIII. El régimen de responsabilidad de los colegiados . . . . . . . . . 106

Capítulo I. Responsabilidad penal y civil . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 106
Capítulo II. Responsabilidad disciplinaria . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 108

Sección 1.ª Facultades disciplinarias de los Tribunales y Colegios . . 108
Sección 2.ª De las infracciones y sanciones . . . . . . . . . . . . . . . . . 110

Título IX. Del régimen jurídico de los acuerdos sometidos a Derecho administrativo y su impugnación . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 120

Disposición transitoria primera . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 124
Disposición transitoria segunda . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 124
Disposición transitoria tercera . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 124

**Léxico** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 129

II. kapitulua. Gobernu-batzarra . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 65
III. kapitulua. Batzar nagusia eta elkargo-batzarra. . . . . . . . . . . . . . . 75
IV. kapitulua. Elkargoaren araubide ekonomikoa. . . . . . . . . . . . . . . 83

V. titulua. Autonomia-erkidegoetako elkargo-kontseiluak . . . . . . . . . . . 85
VI. titulua. Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusia . . . . . . . . . . . 87

I. kapitulua. Organoak eta eginkizunak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 87
II. kapitulua. Kontseilu Nagusiaren osoko bilkura . . . . . . . . . . . . . . 95
III. kapitulua. Batzorde Iraunkorra. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 103
IV. kapitulua. Presidentea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 105

VII. titulua. Espainiako Abokatutzaren Kongresu Nazionala . . . . . . . . . 107
VIII. titulua. Elkargokideen erantzukizun-araubidea . . . . . . . . . . . . . . . 107

I. kapitulua. Erantzukizun penala eta zibila . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 107
II. kapitulua. Diziplina-erantzukizuna . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 109

1. atala. Auzitegi eta elkargoen diziplina-ahalmenak . . . . . . . . . . 109
2. atala. Arau-hausteak eta zehapenak. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 111

IX. titulua. Administrazio Zuzenbidearen mende jarritako erabakien araubide juridikoa eta haiek aurkaratzea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 121

Lehenengo xedapen iragankorra . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 125
Bigarren xedapen iragankorra . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 125
Hirugarren xedapen iragankorra . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 125

**Lexikoa** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 126

Prólogo

# El abogado, el derecho a la defensa y el estado de derecho

La de abogado es una de las profesiones jurídicas clásicas y más conocidas, firmemente anclada en la sociedad. Al pronunciar la palabra abogado, inmediatamente se nos activa el concepto de derecho a la defensa, ya que el vínculo entre ambas ideas es profundo e inquebrantable.

El derecho a la defensa es una de las características más destacadas y reconocibles del estado de derecho, concebido y diseñado como un derecho fundamental (art. 24.2 CE), todos, sin excepciones, tenemos derecho a ser efectivamente asistidos por un abogado. Podemos afirmar que no habrá estado de derecho en ningún ámbito donde no se garantice el derecho a la defensa, y para que esto pueda materializarse el concurso del abogado aparece como imprescindible.

Cada proceso tiene una estructura triangular. El vértice lo ocupa un juez independiente e imparcial. En la base de la pirámide encontramos dos partes enfrentadas en posición de igualdad, necesitadas de que su defensa y estrategia procesales sean correcta y eficientemente gestionadas; para ello es imprescindible, para las dos partes y en todos los procesos, la figura del abogado.

Al abogado le corresponde la asesoría y la defensa; de su mano hallaremos la forma más segura y efectiva de transitar el *iter* procesal. Tener la razón en un litigio es un buen punto de partida para obtener una resolución favorable, pero ni siquiera será suficiente si a través del trabajo de nuestro abogado no lo argumentamos y probamos adecuadamente.

## Hitzaurrea

# Abokatua, defentsa-eskubidea eta zuzenbide-estatua

Abokatuarena ogibide juridiko klasikoenetako bat da, bai eta ezagunenetakoa ere, gizartean sakonki iltzatua dagoena. Abokatu hitza ahoskatu, eta automatikoki defentsa-eskubidea datorkigu burura, sakona eta hautsiezina delako bi kontzeptuen arteko lotura.

Zuzenbide-estatu baten ezaugarri nagusietako bat da defentsa-eskubidea, herritarrentzat oinarrizko eskubide gisa sortu eta diseinatua izan dena (EKren 24.2 art.): guztiok dugu, salbuespenik gabe, abokatuaren laguntza eraginkorra izateko eskubidea. Esan dezakegu ez dagoela zuzenbide-estaturik defentsarako eskubidea bermatzen ez den esparru batean, eta hori gauzatzeko ezinbestekotzat dugu abokatuaren jarduera.

Prozesu orok eta euretariko guztiek egitura triangeluarra dute. Erpinean epaile independente eta inpartziala dago. Piramidearen oinarrian bi alderdi ditugu, aurrez aurre maila berdinean, beren defentsa eta estrategia prozesala modu egoki eta eraginkor batean kudeatzeko premiarekin, eta horretarako ezinbestekoa da, bi alderdientzat eta prozesu guztietan, abokatuaren irudia.

Defendatuaren aholkularitza eta defentsa dagozkio abokatuari, beraren eskutik izango baitu hark prozesuan zehar seguru aurrera egiteko modurik eraginkorrena. Arrazoia izatea ondo dago, baina ez da nahikoa izango aldeko ebazpen bat eskuratzeko, gure abokatuaren lanaren bitartez ez badugu hori ondo argudiatzen eta jarraian frogatzen.

Destacada la importancia de la labor de la abogacía, en cuanto Catedrático de la Universidad del País Vasco, profesor de cientos —casi seguro, miles— de abogados y abogadas y habitante de un territorio con cooficialidad lingüística, me satisface presentar en euskera la ley que ordena la organización, derechos y deberes de la abogacía. Es exactamente el tema que aborda este número de la colección *Legeak-Leyes* y, sin duda, un paso muy importante en la euskaldunización de la Justicia.

IÑAKI ESPARZA LEIBAR
Catedrático de Derecho Procesal de la UPV/EHU

Abokatuaren lanaren garrantzia azpimarratuta, Euskal Herriko Unibertsitateko katedradun, ehunka —ziur asko milaka— abokaturen irakasle izan eta era berean hizkuntza-koofizialtasuna duen herri batean bizi naizen heinean, bereziki pozten nau abokatuen antolaketa eta eskubide eta betebeharrak arautzen dituen legea euskaraz emateak. Hori da *Legeak-Leyes* bildumako ale honek jorratzen duen kontua eta, zalantza gabe, Justizia euskalduntzeko bidean beste pauso garrantzitsu bat.

IŃAKI ESPARZA LEIBAR
UPV/EHUko Zuzenbide Prozesaleko katedraduna

# ESPAINIAKO ABOKATUTZAREN ESTATUTU OROKORRA

---

# ESTATUTO GENERAL DE LA ABOGACÍA ESPAÑOLA

# TÍTULO I

## CAPÍTULO ÚNICO

### De la abogacía y sus organismos rectores

**Artículo 1**

1. La abogacía es una profesión libre e independiente que presta un servicio a la sociedad en interés público y que se ejerce en régimen de libre y leal competencia, por medio del consejo y la defensa de derechos e intereses públicos o privados, mediante la aplicación de la ciencia y la técnica jurídicas, en orden a la concordia, a la efectividad de los derechos y libertades fundamentales y a la Justicia.

2. En el ejercicio profesional, el abogado queda sometido a la normativa legal y estatutaria, al fiel cumplimiento de las normas y usos de la deontología profesional de la abogacía y al consiguiente régimen disciplinario colegial.

3. Los organismos rectores de la Abogacía española, en sus ámbitos respectivos, son: el Consejo General de la Abogacía Española, los Consejos de Colegios de Abogados y los Colegios de Abogados. Todos los organismos colegiales se someterán en su actuación y funcionamiento a los principios democráticos y al régimen de control presupuestario anual, con las competencias atribuidas en las disposiciones legales y estatutarias.

# I. TITULUA

## KAPITULU BAKARRA

## Abokatutza eta hura gidatzen duten organoak

### 1. artikulua

1. Abokatutza lanbide libre eta independentea da, gizarteari interes publikoko zerbitzu bat ematen diona eta lehia libre eta leialeko araubidean jarduten duena, aholku emanez eta eskubide eta interes publiko edo pribatuak aldeztuz, zientzia eta teknika juridikoa aplikatuta, konkordiaren alde, oinarrizko eskubide eta askatasunak benetako izatearen alde eta justiziaren alde.

2. Jardun profesionalean, abokatua legezko eta estatutuzko araudiaren mende dago, deontologia profesionaleko arau eta ohiturak leialtasunez betetzearen mende eta ondorioz dagokion elkargoko diziplina-araubidearen mende.

3. Organismo hauek dira Espainiako abokatutzaren gidari, zein bere eremuan: Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusia, abokatu-elkargoen kontseiluak eta abokatu-elkargoak. Elkargo-organismo guztiak, beren jarduera eta funtzionamenduan, printzipio demokratikoen mende eta urteko aurrekontu-kontrolerako araubidearen mende egongo dira, legezko eta estatutuzko xedapenetan esleitutako eskumenekin.

**Artículo 2**

1. Los Colegios de Abogados son corporaciones de derecho público amparadas por la Ley y reconocidas por el Estado, con personalidad jurídica propia y plena capacidad para el cumplimiento de sus fines.

2. En las provincias donde existe un solo Colegio de Abogados, éste tendrá competencia en el ámbito territorial de toda la provincia y sede en su capital.

3. En las provincias con varios Colegios de Abogados, cada uno de ellos tendrá competencia exclusiva y excluyente en el ámbito territorial que tenía al promulgarse la Constitución española de 1978, cualquiera que sea el número de partidos judiciales que ahora comprenda.

4. La modificación de las demarcaciones judiciales no afectará al ámbito territorial de los Colegios de Abogados, que tendrán competencia en los nuevos partidos judiciales que puedan crearse en su territorio.

5. En caso de creación de partidos judiciales que comprendan territorios de distintos Colegios, éstos podrán acordar la modificación de su ámbito territorial a fin de que la competencia colegial afecte a partidos judiciales completos, salvo que los Colegios interesados convengan otra cosa. Si no se alcanzare acuerdo entre los Colegios, el Consejo de Colegios de la respectiva Comunidad Autónoma o, en su defecto, el Consejo General de la Abogacía atribuirá la competencia colegial, ponderando adecuadamente las circunstancias concurrentes.

## TÍTULO II

## CAPÍTULO I

### De los Colegios de Abogados

**Artículo 3**

1. Son fines esenciales de los Colegios de Abogados, en sus respectivos ámbitos, la ordenación del ejercicio de la profesión; la representación exclusiva de la misma; la defensa de los derechos e intereses profesionales de los colegiados; la formación profesional permanente de los abogados; el control deontológico y la aplicación del régimen disciplinario en garantía de la sociedad; la defensa del Estado social y democrático de derecho proclamado en la Constitución y la promoción y defensa de los Derechos Humanos, y la colaboración en el funcionamiento, promoción y mejora de la Administración de Justicia.

**2. artikulua**

1. Abokatu-elkargoak zuzenbide publikoko korporazioak dira, legeak babestuak eta Estatuak aitortuak, nortasun juridiko propioa eta beren xedeak betetzeko gaitasun osoa dutenak.

2. Abokatu-elkargo bakarra dagoen probintzietan, bakar horrek probintziaren lurralde-esparru osoan izango du eskumena, eta hiriburuan egoitza.

3. Abokatu-elkargo bat baino gehiago dagoen probintzietan, haietako bakoitzak eskumen esklusiboa eta baztertzailea izango du 1978an Espainiako Konstituzioa aldarrikatzean zeukan lurralde-eremuan, edozein dela ere orain hartzen dituen barruti judizialen kopurua.

4. Mugape judizialen aldaketak ez du eraginik izango abokatu-elkargoen lurralde-esparruan; elkargook eskumena izango dute beren lurraldean sor litezkeen barruti judizial berrietan.

5. Barruti judizial bat sortzen bada elkargo bat baino gehiagoren lurraldeak hartzen dituena, elkargoek aukera izango dute beren lurralde-esparrua aldatzeko, elkargoen eskumena barruti judizial osoei egokitu dakien, non eta elkargo interesdunek ez duten besterik erabakitzen. Elkargoen arteko adostasunik izan ezean, autonomia-erkidegoko Elkargoen Kontseiluak edo bestela Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak esleituko die eskumena, kasuko inguruabarrak egoki haztatuz.

## II. TITULUA

## I. KAPITULUA

## Abokatu-elkargoak

**3. artikulua**

1. Abokatu-elkargoen funtsezko xede dira, bakoitzaren esparruan: lanbideko jarduna antolatzea; haren ordezkaritza esklusiboa izatea; elkargokideen eskubide eta interes profesionalen defentsa; abokatuen etengabeko lanbide-prestakuntza; kontrol deontologikoa eta diziplina-araubidea aplikatzea gizartearen bermez; Konstituzioan aldarrikatutako zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoaren defentsa eta giza eskubideen sustapena eta defentsa, eta laguntza ematea Justizia Administrazioaren funtzionamenduan, sustapenean eta hobekuntzan.

2. Los Colegios de Abogados se regirán por las disposiciones legales estatales o autonómicas que les afecten, por el presente Estatuto General, por sus Estatutos particulares, por sus Reglamentos de régimen interior y por los acuerdos aprobados por los diferentes órganos corporativos en el ámbito de sus respectivas competencias.

**Artículo 4**

1. Son funciones de los Colegios de Abogados, en su ámbito territorial:

a) Ostentar la representación que establezcan las Leyes para el cumplimiento de sus fines y, especialmente, la representación y defensa de la profesión ante la Administración, Instituciones, Tribunales, entidades y particulares, con legitimación para ser parte en cuantos litigios y causas afecten a los derechos e intereses profesionales y a los fines de la abogacía, ejercitar las acciones penales, civiles, administrativas o sociales que sean procedentes, así como para utilizar el derecho de petición conforme a la Ley.
b) Informar, en los respectivos ámbitos de competencia, de palabra o por escrito, en cuantos proyectos o iniciativas de las Cortes Generales, del Gobierno, de órganos legislativos o ejecutivos de carácter autonómico y de cuantos otros Organismos que así lo requieran.
c) Colaborar con el Poder Judicial y los demás poderes públicos mediante la realización de estudios, emisión de informes, elaboración de estadísticas y otras actividades relacionadas con sus fines, que les sean solicitadas o acuerden por propia iniciativa.
d) Organizar y gestionar los servicios de asistencia jurídica gratuita y cuantos otros de asistencia y orientación jurídica puedan estatutariamente crearse.
e) Participar en materias propias de la profesión en los órganos consultivos de la Administración, así como en los organismos interprofesionales.
f) Asegurar la representación de la abogacía en los Consejos Sociales y Patronatos Universitarios, en los términos establecidos en las normas que los regulen.
g) Participar en la elaboración de los planes de estudios, informar de las normas de organización de los centros docentes correspondientes a la profesión, mantener permanente contacto con los mismos, crear, mantener y proponer al Consejo General de la Abogacía Española la homologación de Escuelas de Práctica Jurídica y otros medios para facilitar el

2. Abokatu-elkargoen gidatzaile izango dira: dagozkien lege-xedapen estatal edo autonomikoak, Estatutu Orokor hau, beren estatutu partikularrak, barne-araubideko erregelamenduak eta bakoitzaren organo korporatiboek beren eskumenen barruan onetsitako erabakiak.

**4. artikulua**

1. Funtzio hauek dituzte abokatu-elkargoek, beren lurralde-esparruan:

a) Legeek ezartzen duten ordezkaritza izatea beren xedeak betetzeko: bereziki, lanbidearen ordezkaritza eta defentsa Administrazioaren, erakundeen, auzitegien, entitateen eta partikularren aurrean, legitimazioa dutela abokatutzaren eskubide eta interes profesionalei eta xedeei dagokien auzi orotan alderdi izateko, bidezko diren akzio penal, zibil, administratibo edo sozialak egikaritzeko, eta, orobat, eskariak egiteko eskubidea legearen arabera baliatzeko.

b) Informazioa ematea, bakoitzak bere eskumen-esparruan, ahoz edo idatziz, hala eskatzen duen zeinahi proiektu edo ekimenetan, dela Gorte Nagusiena, Gobernuarena, autonomia-erkidegoetako organo legegile edo betearazleena edo beste edozein organismorena.
c) Botere Judizialarekin eta gainerako botere publikoekin lankidetzan aritzea, azterketak eginez, txostenak emanez, estatistikak prestatuz eta beren xedeekin lotutako beste jarduera batzuen bidez, izan eskatuak edo beren ekimenez erabakiak.
d) Doako laguntza juridikorako zerbitzuak antolatzea eta kudeatzea, eta, orobat, estatutuen arabera sor daitekeen laguntza edo orientazio juridikorako beste edozein zerbitzu antolatzea eta kudeatzea.
e) Lanbideari dagozkion gaietan parte hartzea Administrazioaren organo aholku-emaileetan, eta orobat lanbide arteko organismoetan.

f) Abokatutzaren ordezkaritza ziurtatzea unibertsitateetako gizarte-kontseiluetan eta patronatuetan, haiek erregulatzen dituzten arauetan ezarritako terminoetan.
g) Parte hartzea ikasketa-planen prestakuntzan; informazioa ematea lanbideari dagozkion ikasketa-zentroetako antolaketa-arauei buruz; etengabeko harremanetan egotea haiekin; tituludun berriei bizitza profesionalerako sarbidea errazteko, praktika juridikorako eskolak eta beste bide batzuk sortzea eta mantentzea, eta haiek homologatzeko proposatzea

acceso a la vida profesional de los nuevos titulados, y organizar cursos para la formación y perfeccionamiento profesional.

h) Ordenar la actividad profesional de los colegiados, velando por la formación, la ética y la dignidad profesionales y por el respeto debido a los derechos de los particulares; ejercer la facultad disciplinaria en el orden profesional y colegial; elaborar sus Estatutos particulares y las modificaciones de los mismos, sometiéndolos a la aprobación del Consejo General de la Abogacía Española; redactar y aprobar su propio Reglamento de régimen interior, sin perjuicio de su visado por el Consejo General, y demás acuerdos para el desarrollo de sus competencias.
i) Organizar y promover actividades y servicios comunes de interés para los colegiados, de carácter profesional, formativo, cultural, asistencial, de previsión y otros análogos, incluido el aseguramiento obligatorio de la responsabilidad civil profesional cuando legalmente se establezca.
j) Procurar la armonía y colaboración entre los colegiados impidiendo la competencia desleal entre los mismos.
k) Adoptar las medidas conducentes a evitar y perseguir el intrusismo profesional.
l) Intervenir, previa solicitud, en vías de conciliación o arbitraje en las cuestiones que, por motivos profesionales, se susciten entre los colegiados, o entre éstos y sus clientes.
m) Ejercer funciones de arbitraje en los asuntos que les sean sometidos, así como promover o participar en instituciones de arbitraje.
n) Resolver las discrepancias que puedan surgir en relación con la actuación profesional de los colegiados y la percepción de sus honorarios, mediante laudo al que previamente se sometan de modo expreso las partes interesadas.
ñ) Establecer baremos orientadores sobre honorarios profesionales, y, en su caso, el régimen de las notas de encargo o presupuestos para los clientes.
o) Informar y dictaminar sobre honorarios profesionales, así como establecer, en su caso, servicios voluntarios para su cobro.

p) Cumplir y hacer cumplir a los colegiados, en cuanto afecte a la profesión, las disposiciones legales y estatutarias, así como las normas y decisiones adoptadas por los órganos colegiales en materia de su competencia.

Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiari; eta ikastaroak antolatzea lanbide-prestakuntzarako eta -hobekuntzarako.

h) Elkargokideen jarduera profesionala antolatzea, ondo zainduz lanbideari dagozkion prestakuntza, etika eta duintasuna eta partikularren eskubideei zor zaien errespetua; diziplina-ahalmena egikaritzea lanbidearen eta elkargoaren arloan; beren estatutu partikularrak eta haien aldaketak egitea, eta Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren onespenaren mende jartzea; beren barne-araubidearen erregelamendua idaztea eta onestea, Kontseilu Nagusiak ikustatzearen kalterik gabe, eta beren eskumenak garatzeko gainerako erabakiak.

i) Intereseko jarduerak eta zerbitzu komunak antolatzea eta sustatzea elkargokideentzat, bai lanbideari dagozkionak, bai prestakuntzari, bai kulturari, asistentziari, aurreikuspenari eta halako besteri dagozkienak, barne delarik erantzukizun zibil profesionala nahitaez segurtatu beharra legez hala ezartzen denean.

j) Elkargokideen arteko harmonia eta lankidetza bilatzea, eta haien arteko lehia desleiala eragoztea.

k) Intrusismo profesionala galarazteko eta hari jazartzeko neurriak hartzea.

l) Esku hartzea, eskatzen diotenean, adiskidetze- edo arbitraje-bideetan, arrazoi profesionalengatik arazoak sortzen badira elkargokideen artean edo haien eta bezeroen artean.

m) Arbitraje-lanak egitea haien mende jartzen diren gaietan, eta, halaber, arbitraje-erakundeak sustatzea edo haietan parte hartzea.

n) Elkargokideen jarduera profesionala dela medio edo ordainsariak jasotzea dela medio sortzen diren desadostasunak konpontzea, laudo baten bitartez, aurrez alderdi interesdunak espresuki haren mende jarrita.

ñ) Ordainsari profesionaletarako baremo orientagarriak eta, hala badagokio, bezeroentzako enkargu-idatzi edo aurrekontuen araubidea ezartzea.

o) Ordainsari profesionalei buruzko txostenak egitea eta irizpenak ematea, eta orobat, hala badagokio, haiek kobratzeko borondatezko zerbitzuak jartzea.

p) Legezko eta estatutuzko xedapenak betetzea eta elkargokideei betearaztea, lanbideari dagokion guztian, eta orobat betetzea eta betearaztea elkargoaren organoek beren eskumeneko gaietan hartutako erabakiak.

q) Cuantas otras funciones redunden en beneficio de los intereses de la profesión, de los colegiados y demás fines de la abogacía.
r) Las demás que vengan dispuestas por la legislación estatal o autonómica.

2. Los Colegios podrán establecer delegaciones en aquellas demarcaciones judiciales en que resulte conveniente para el mejor cumplimiento de los fines y mayor eficacia de las funciones colegiales. Las delegaciones ostentarán la representación colegial delegada en el ámbito de su demarcación, con las facultades y competencias que determine la Junta de Gobierno del Colegio al crearlas o en acuerdos posteriores.

**Artículo 5**

1. Los Colegios de Abogados tendrán su tratamiento tradicional y, en todo caso, el de ilustre y sus Decanos el de ilustrísimo señor. No obstante, los Decanos de Colegios en cuya sede radiquen Salas del Tribunal Superior de Justicia, los Presidentes de Consejos de Colegios de Comunidad Autónoma y los miembros del Consejo General de la Abogacía, que no tengan otro tratamiento por su condición de Decano, tendrán el de excelentísimo señor. Tanto dichos tratamientos, como la denominación honorífica de Decano, se ostentarán con carácter vitalicio.

2. Los Decanos de Colegios cuya sede radique en capital de provincia tendrán la consideración honorífica de Presidente de Sala del respectivo Tribunal o Audiencia. Los Decanos de los demás Colegios tendrán la consideración honorífica de Magistrado o Juez del Juzgado de Primera Instancia e Instrucción de la localidad en que el Colegio se halle constituido.

3. Los Decanos de los Colegios de Abogados y los miembros de los Consejos de Colegios de Comunidades Autónomas y del Consejo General de la Abogacía Española llevarán vuelillos en sus togas, así como las medallas y placas correspondientes a sus cargos, en audiencia pública y actos solemnes a los que asistan en ejercicio de los mismos. En tales ocasiones los demás miembros de la Junta de Gobierno de los Colegios de Abogados llevarán sobre la toga los atributos propios de sus cargos, así como vuelillos en la toga si tradicionalmente tuvieren reconocido ese derecho.

q) Lanbidearen, elkargokideen eta abokatutzaren gainerako xedeen intereseko gertatzen den beste edozein funtzio.
r) Estatuko edo autonomia-erkidegoko legerian ezartzen diren gainerakoak.

2. Elkargoek delegazioak ezarri ahal izango dituzte barruti judizialetan, haietakoren batean hala komeni bada elkargoaren xedeak hobeto betetzeko eta haren eginkizunak eraginkorrago izateko. Delegazioak izango dira elkargoaren ordezkaritza delegatua beren mugapearen esparruan, elkargoaren gobernu-batzarrak haiek sortzean edo geroagoko erabakiz ezarritako ahalmenak eta eskumenak dituztela.

**5. artikulua**

1. Abokatu-elkargoek beren tradiziozko trataera izango dute; kasu guztietan, prestuarena, eta dekanoek, berriz, jaun/andre txit prestuarena. Hala ere, beren egoitzan justizia-auzitegi nagusien salaren bat duten elkargoetako dekanoek, autonomia-erkidegoetako elkargo-kontseiluetako presidenteek eta Abokatutzaren Kontseilu Nagusiko kideek, ez badute beste trataerarik dekano izateagatik, jaun/andre gorenaren tratamendua izango dute. Trataera horiek, eta orobat dekano-izendapen ohorezkoa, biziartekoak izango dira.

2. Egoitza probintzia-hiriburuetan duten elkargoetako dekanoek sala-presidentearen trataera ohorezkoa izango dute beren auzitegi edo entzutegian. Gainerako elkargoetako dekanoek, berriz, magistratu edo epailearen kontsiderazio ohorezkoa izango dute elkargoa eratu den hiriko lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegian.

3. Abokatuen elkargoetako dekanoek eta autonomia-erkidegoetako elkargo-kontseiluetako eta Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiko kideek eskumutur-parpailak eramango dituzte togan, eta beren karguei dagozkien dominak eta plakak, karguotako jardunean aritzea egokitzen zaien entzunaldi publiko eta ekitaldi solemneetan. Halakoetan, abokatu-elkargoetako gobernu-batzarretako gainerako kideek, togaren gainean, beren karguei dagozkien ezaugarriak eramango dituzte, eta, tradizioz eskubidea aitortua badute, eskumutur-parpailak togan.

## CAPÍTULO II

**De los abogados**

### SECCIÓN 1.ª

*Disposiciones generales*

**Artículo 6**

Corresponde en exclusiva la denominación y función de abogado al Licenciado en Derecho que ejerza profesionalmente la dirección y defensa de las partes en toda clase de procesos, o el asesoramiento y consejo jurídico.

**Artículo 7**

1. Los Colegios de Abogados velarán para que a ninguna persona se le niegue la asistencia de un letrado para la defensa de sus derechos e intereses, ya sea de su libre elección o bien de oficio, con o sin reconocimiento del derecho de asistencia jurídica gratuita, conforme a los requisitos establecidos al efecto.

2. Los órganos de la abogacía, en sus respectivos ámbitos, velarán por los medios legales a su alcance para que se remuevan los impedimentos de cualquier clase que se opongan a la intervención en derecho de los abogados, incluidos los normativos, así como para que se reconozca la exclusividad de su actuación.

3. Los Colegios de Abogados, los Consejos de Colegios de las Comunidades Autónomas y el Consejo General ejercitarán las acciones que fueren procedentes por presuntos delitos o faltas de intrusismo.

**Artículo 8**

1. La intervención profesional del abogado en toda clase de procesos y ante cualquier jurisdicción será preceptiva cuando así lo disponga la ley.

2. El abogado podrá ejercer su profesión ante cualquier clase de Tribunales, órganos administrativos, asociaciones, corporaciones y entidades públicas de cualquier índole, sin perjuicio de poderlo hacer también ante cualquier entidad o persona privada cuando lo requieran sus servicios.

3. El abogado podrá ostentar la representación del cliente cuando no esté reservada por ley a otras profesiones.

## II. KAPITULUA

## Abokatuak

### 1. ATALA

### *Xedapen orokorrak*

**6. artikulua**

Abokatu-izena eta -eginkizuna, esklusiboki, profesionalki edozein prozesu motatan alderdiak zuzentzen edo defendatzen edo aholkularitza juridikoa ematen diharduten Zuzenbideko lizentziadunei dagokie.

**7. artikulua**

1. Abokatuen elkargoek begiratuko dute inori ez diezaiotela ukatu abokatu baten laguntza izatea bere eskubide eta interesen defentsarako, izan berak libreki aukeratua edo ofiziozkoa, doako laguntza juridikorako eskubidea aitortua izan edo ez, hartarako ezarritako betekizunen arabera.

2. Abokatutzako organoek, zeinek bere esparruan, beren esku dituzten legezko baliabideen bitartez begiratuko dute ken daitezela abokatuek zuzenbidez esku hartzea oztopatzen duten eragozpenak, arauzkoak barne, eta orobat aitor dadila haien jardueraren esklusibotasuna.

3. Abokatu-elkargoek, autonomia-erkidegoetako elkargo-kontseiluek eta Kontseilu Nagusiak bidezko diren akzioak egikarituko dituzte presuntzioz intrusismozko delitu edo falta izan daitezkeen kasuetan.

**8. artikulua**

1. Abokatuaren esku-hartze profesionala, edozein motatako prozesuetan eta edozein jurisdikzioren aurrean, nahitaezkoa izango da legeak hala xedatzen duenean.

2. Abokatuak bere lanbidean jardun dezake mota guztietako auzitegi, administrazio-organo, elkarte, korporazio eta zeinahi korporazio eta entitate publikoren aurrean; jardun dezake, orobat, edozein entitate edo pertsona pribaturen aurrean ere, bere zerbitzuek hala eskatzen dutenean.

3. Abokatuak bezeroaren ordezkaritza izan dezake ordezkaritza ez badago legez beste lanbide batzuei erreserbatua.

**Artículo 9**

1. Son abogados quienes, incorporados a un Colegio español de Abogados en calidad de ejercientes y cumplidos los requisitos necesarios para ello, se dedican de forma profesional al asesoramiento, concordia y defensa de los intereses jurídicos ajenos, públicos o privados.

2. Corresponde en exclusiva la denominación y función de abogado a quienes lo sean de acuerdo con la precedente definición, y en los términos previstos por el artículo 436 de la Ley Orgánica del Poder Judicial.

3. No obstante, podrán seguir utilizando la denominación de abogado, añadiendo siempre la expresión «sin ejercicio», quienes cesen en el ejercicio de dicha profesión después de haber ejercido al menos veinte años.

4. También podrán pertenecer a los Colegios de Abogados, con la denominación de colegiados no ejercientes, quienes reúnan los requisitos establecidos en el artículo 13.1 de este Estatuto General.

**Artículo 10**

Podrán ser Decanos o Colegiados de Honor aquellas personas o Instituciones que reciban este nombramiento por acuerdo de la Junta General del Colegio, a propuesta de la de Gobierno y en atención a méritos o servicios relevantes prestados en favor de la Abogacía o del propio Colegio.

## Sección 2.ª

## *De la colegiación*

**Artículo 11**

Para el ejercicio de la abogacía es obligatoria la colegiación en un Colegio de Abogados, salvo en los casos determinados expresamente por la Ley o por este Estatuto General. Bastará la incorporación a un solo Colegio, que será el del domicilio profesional único o principal, para ejercer en todo el territorio del Estado.

**Artículo 12**

No podrá limitarse el número de los componentes de los Colegios de Abogados ni cerrarse temporal o definitivamente la admisión de nuevos colegiados.

**9. artikulua**

1. Abokatu dira zeinak, Espainiako abokatu-elkargo batean sartuta egonik jardule gisa, eta hartarako eskatzen diren baldintzak beterik, profesionalki aritzen baitira besteren interes juridiko publiko nahiz pribatuen aholkularitzan, adiskidetzean eta defentsan.

2. Abokatu izena eta eginkizuna esklusiboki dagokie definizio horren arabera hala direnei, eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 436. artikuluan ezarritako moduan.

3. Hala ere, abokatu izena erabiltzen jarraitu ahal izango dute, beti «ez diharduena» adierazpena gehituta, lanbidean gutxienez hogei urtez aritu ondoren jarduna utzita daukatenek.

4. Orobat izan daitezke abokatu-elkargoetako kide, «ez diharduen elkargokide» izendapenarekin, Estatutu Orokor honen 13.1 artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituztenak.

**10. artikulua**

Dekano edo ohorezko elkargokide izan daiteke izendapen hori jasotzen duen pertsona edo erakunde oro, elkargoko batzar nagusiak hala erabakita, gobernu-batzarraren proposamenez, abokatutzaren edo elkargoaren beraren mesedetan egindako merezimendu edo zerbitzuak direla eta.

## 2. ATALA

*Elkargokide egitea*

**11. artikulua**

Abokatutzan jarduteko, nahitaezkoa da abokatu-elkargo bateko kide izatea, salbu eta legeak edo Estatutu Orokor honek espresuki hala adierazitako kasu jakinetan. Aski izango da elkargo bakar bateko kide izatea, egoitza profesional bakar edo nagusiari dagokion hartakoa, Estatuaren lurralde osoan jarduteko.

**12. artikulua**

Ezin mugatuko da abokatu-elkargoetako kide kopurua, ez eta elkargokide berriak onartzeko aukera behin-behinekoz edo behin betiko itxi ere.

**Artículo 13**

1. La incorporación a un Colegio de Abogados exigirá los siguientes requisitos:

a) Tener nacionalidad española o de algún Estado miembro de la Unión Europea o del acuerdo sobre el_Espacio Económico Europeo de 2 de mayo de 1992, salvo lo dispuesto en tratados o convenios internacionales o dispensa legal.
b) Ser mayor de edad y no estar incurso en causa de incapacidad.
c) Poseer el título de Licenciado en Derecho o los títulos extranjeros que, conforme a las normas vigentes, sean homologados a aquéllos.
d) Satisfacer la cuota de ingreso y demás que tenga establecidas el Colegio.

2. La incorporación como ejerciente exigirá, además, los siguientes requisitos:

a) Carecer de antecedentes penales que inhabiliten para el ejercicio de la abogacía.
b) No estar incurso en causa de incompatibilidad o prohibición para el ejercicio de la abogacía.
c) Por Ley, a tenor de lo establecido en los artículos 36 y 149.1.30ª de la Constitución, se podrán establecer fórmulas homologables con el resto de los países de la Unión Europea que garanticen la preparación en el ejercicio de la profesión.
   En todo caso, estarán exceptuados de dicho régimen los funcionarios al servicio de las Administraciones públicas, en el ámbito civil o militar, que hayan superado los correspondientes concursos u oposiciones de ingreso, para cuya concurrencia hayan acreditado la licenciatura en derecho y hayan tomado posesión de su cargo, así como quien haya sido con anterioridad abogado ejerciente incorporado en cualquier Colegio de Abogados de España.
d) Formalizar el ingreso en la Mutualidad General de la Abogacía, Mutualidad de Previsión Social a prima fija o, en su caso, en el Régimen de Seguridad Social que corresponda de acuerdo con la legislación vigente.

**Artículo 14**

1. Son circunstancias determinantes de incapacidad para el ejercicio de la abogacía:

**13. artikulua**

1. Abokatu-elkargo batean kidetzeko, betekizun hauek bete beharko dira:

a) Espainiar nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko kide den estaturen batekoa edo 1992ko maiatzaren 2ko Europako Ekonomia Esparruari buruzko akordioko kide zen estaturen batekoa, salbu utzirik nazioarteko tratatu edo hitzarmenetan edo lege-dispentsetan xedatutakoa.
b) Adin nagusikoa izatea, eta ez izatea ezgaitasun-kausarik.
c) Zuzenbideko lizentziadunaren titulua izatea, edo indarrean diren arauen arabera harekin homologatua den nazioarteko tituluren bat.
d) Sarrera-kuota eta elkargoak ezarrita dauzkan gainerakoak ordaintzea.

2. Jardule gisa sartzeak, gainera, betekizun hauek eskatzen ditu:

a) Ez izatea aurrekari penalik, abokatutzan jarduteko desgaitzen duenik.

b) Ez sarturik egotea abokatutzan jarduteko bateraezintasun- edo debekukausetakoren batean.
c) Legez, Konstituzioaren 36. eta 149.1.30 artikuluetan xedatutakoaren arabera, formula homologagarriak ezarri ahal izango dira Europar Batasuneko gainerako herrialdeekin, lanbidean jarduteko prestakuntza bermatuko dutenak.
Betiere, araubide horretatik salbuetsita egongo dira esparru zibilean edo militarrean administrazio publikoen zerbitzuko funtzionarioak, sarbiderako dagokion lehiaketa edo oposizioak gainditu badituzte, hartarako Zuzenbideko lizentziatura egiaztatu eta kargua hartu dutelarik, eta orobat lehendik Espainiako beste edozein abokatu-elkargotan sarturik abokatu jardule izan direnak.

d) Sarturik egotea Abokatutzaren Mutualitate Orokorrean —gizarte aurreikuspeneko prima finkoko mutualitatea— edo, bestela, indarrean den legeriaren arabera dagokion Gizarte Segurantzako araubidean.

**14. artikulua**

1. Abokatutzan jarduteko ezintasuna dakarten inguruabarrak dira:

a) Los impedimentos que, por su naturaleza o intensidad, no permitan el cumplimiento de la misión de defensa de los intereses ajenos que a los abogados se encomienda.
b) La inhabilitación o suspensión expresa para el ejercicio de la abogacía en virtud de resolución judicial o corporativa firme.
c) Las sanciones disciplinarias firmes que lleven consigo la suspensión del ejercicio profesional o la expulsión de cualquier Colegio de Abogados.

2. Las incapacidades desaparecerán cuando cesen las causas que las hubieran motivado o se haya extinguido la responsabilidad disciplinaria conforme al artículo 90 del presente Estatuto.

**Artículo 15**

1. Las solicitudes de incorporación serán aprobadas, suspendidas o denegadas por la Junta de Gobierno de cada Colegio, previas las diligencias e informes que proceda, mediante resolución motivada contra la que cabrán los recursos previstos en este Estatuto General.

2. Los Colegios de Abogados no podrán denegar el ingreso en la corporación a quienes reúnan los requisitos establecidos en el artículo 13 de este Estatuto General.

**Artículo 16**

1. Los abogados, antes de iniciar su ejercicio profesional por primera vez, prestarán juramento o promesa de acatamiento a la Constitución y al resto del ordenamiento jurídico, y de fiel cumplimiento de las obligaciones y normas deontológicas de la profesión de abogado.

2. El juramento o promesa será prestado ante la Junta de Gobierno del Colegio de Abogados al que el abogado se incorpore como ejerciente por primera vez, en la forma que la propia Junta establezca.

3. La Junta podrá autorizar que el juramento o promesa se formalice inicialmente por escrito, con compromiso de su posterior ratificación pública. En todo caso, se deberá dejar constancia en el expediente personal del colegiado de la prestación de dicho juramento o promesa.

**Artículo 17**

1. Todo abogado incorporado a cualquier Colegio de Abogados de España podrá prestar sus servicios profesionales libremente en todo el territorio del Es-

a) Edozein eragozpen, bere izaeragatik edo intentsitateagatik abokatuei galarazten diena gomendatzen zaien xedea betetzea, besteren interesak defendatzea alegia.
b) Ebazpen judizial edo korporatibo irmoz abokatutzan jarduteko desgaiturik edo geldieran egotea.
c) Diziplina-zehapen irmoak, jarduera profesionalaren geldiera edo elkargo profesionalen batetik kanporatzea dakartenak.

2. Ezintasunak desagertu egingo dira haiek eragin dituzten kausak desagertzen direnean, edo Estatutu honen 90. artikuluak dioenaren arabera diziplina-erantzukizuna azkentzen denean.

**15. artikulua**

1. Elkargo bakoitzeko gobernu-batzarrak onetsiko, geldieran utziko edo ukatuko ditu elkargoan sartzeko eskabideak, aurrez behar diren eginbideak eta txostenak eginda, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ebazpen horren kontra, Estatutu Orokor honetan jasotako errekurtsoak jarri ahal izango dira.

2. Abokatu-elkargoek ezin izango diete ukatu korporazioan sartzea Estatutu Orokor honen 13. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituztenei.

**16. artikulua**

1. Abokatuek, lehenbizikoz beren jardun profesionala hasi baino lehen, zin edo promes egingo dute men egingo diotela Konstituzioari eta gainerako ordenamendu juridikoari, eta leialki beteko dituztela abokatu-lanbidearen betebeharrak eta arau deontologikoak.

2. Zin edo promes hori abokatuen elkargoko gobernu-batzarraren aurrean egingo da, abokatua jardule gisa lehenbizikoz sartuko den elkargoan hain zuzen, batzarrak berak erabakitzen duen moduan.

3. Batzarrak baimena eman ahal izango du zin edo promesa hasiera batean idatziz formaliza dadin, gero publikoki berresteko konpromisoarekin. Betiere, zin edo promes hori egin dela jasota utzi beharko da elkargokidearen espediente pertsonalean.

**17. artikulua**

1. Espainiako edozein abokatu-elkargotan sartutako abokatu orok libreki egin ahal izango ditu bere zerbitzu profesionalak Estatuko lurralde osoan, Eu-

tado, en el resto de los Estados miembros de la Unión Europea y en los demás países, con arreglo a la normativa vigente al respecto. Los abogados de otros países podrán hacerlo en España conforme a la normativa vigente al efecto.

2. Para actuar profesionalmente en el ámbito territorial de cualquier otro Colegio diferente de aquel al que estuviere incorporado, no podrá exigirse al abogado habilitación alguna ni el pago de contraprestaciones económicas distintas de aquellas que se exijan habitualmente a los colegiados del Colegio donde vaya a intervenir por la prestación de los servicios de los que sean beneficiarios y que no se encuentren cubiertos por la cuota colegial.

3. No obstante, el abogado que vaya a ejercer en un territorio diferente al de su colegiación, deberá comunicarlo al Colegio en cuyo ámbito haya de intervenir directamente, a través del propio Colegio a que esté incorporado, del Consejo General de la Abogacía Española o del correspondiente Consejo Autonómico, en la forma que establezca el Consejo General de la Abogacía Española. La comunicación surtirá efectos desde su presentación, registro y sello de la copia, sin perjuicio de que se recabe del Colegio de origen que, previa diligencia del Consejo General de la Abogacía Española de que el comunicante no está sancionado o incapacitado para el ejercicio profesional en ningún Colegio de España, haga constar ante el Colegio de destino que el comunicante está incorporado en el mismo como abogado en ejercicio y que no ha sido sancionado o incapacitado para dicho ejercicio en ningún Colegio de Abogados de España.

4. En las actuaciones profesionales que lleve a cabo en el ámbito territorial de otro Colegio, el abogado estará sujeto a las normas de actuación, deontología y régimen disciplinario del mismo. Dicho Colegio protegerá su libertad e independencia en la defensa y será competente para la tramitación y resolución de los expedientes disciplinarios a que hubiere lugar, sin perjuicio de que la eventual sanción surta efectos en todos los Colegios de España conforme al artículo 89.2 de este Estatuto General.

5. No se necesitará incorporación a un Colegio para la defensa de asuntos propios o de parientes hasta el tercer grado de consanguinidad o segundo de afinidad, siempre que el interesado reúna los requisitos establecidos por el artículo 13.1, párrafos a), b) y c) del presente Estatuto, así como aquellos que puedan establecer las normas vigentes. Los que se hallen en este caso serán habilitados por el Decano del Colegio de Abogados para la intervención que se solicite. Tal habilitación supone para quien la recibe, aunque sólo con relación al asunto o asuntos a que alcanza, el disfrute de todos los derechos concedidos en general a los abogados y la asunción de las correlativas obligaciones.

ropar Batasuneko gainerako herrialdeetan eta beste edozein herrialdetan, hartarako indarrean den araudiaren arabera. Beste herrialdeetako abokatuek Espainian jardun ahal izango dute, hartarako indarrean den araudiaren arabera.

2. Bera kide denaz beste edozein elkargoren lurralde-eremuan profesionalki jarduteko, abokatuari ezin izango zaio eskatu inolako gaikuntzarik, ez eta diru-ordainik ematerik ere, esku hartu behar duen tokiko elkargoko kideei eskatzen ez zaienik, berak onuradun diren eta elkargokide-kuotak babesten ez dituen zerbitzuengatik.

3. Hala ere, bere elkargoarena ez den lurralde batean jardun behar duen abokatuak jakinarazi egin beharko dio hori zuzenean esku hartu behar duen lurraldeko elkargoari, bera kideturik dagoen elkargoaren bitartez, Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren bitartez edo dagokion erkidego-kontseiluaren bitartez, Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak ezartzen duen moduan. Jakinarazpenak ondorioak izango ditu kopia aurkezten, erregistratzen eta zigilatzen den unetik beretik; nolanahi ere, jatorriko elkargoari eskatu ahal izango zaio, aurrez Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak eginbidez adierazita komunikatzailea ez dagoela zehatuta edo jarduera profesionalerako ezgaituta Espainiako ezein elkargotan, helburuko elkargoan jasota utz dezala komunikatzailea hartan sartuta dagoela diharduen abokatu gisa eta ez dagoela zehatuta edo jarduera profesionalerako ezgaituta Espainiako ezein abokatu-elkargotan.

4. Beste elkargoren baten lurralde-eremuan egiten dituen jarduera profesionaletan, abokatua hartako jarduera-arauen, deontologiaren eta diziplina-araubidearen mende egongo da. Elkargo horrek abokatuaren defentsa-lanetako askatasuna eta independentzia babestuko du, eta eskudun izango da diziplina-espedienteak izapidetzeko eta ebazteko, halakorik sortzen bada, hargatik eragotzi gabe zehapenik izaten bada hark Espainiako elkargo guztietan izatea ondorioak, Estatutu Orokor honen 89.2 artikuluaren arabera.

5. Ez da beharrezko izango elkargo batean kidetuta egotea norberaren edo hirugarren gradurainoko odolkidetasuneko edo bigarren gradurainoko kidetasuneko senideen auzietan defentsa egiteko, betiere interesdunak betetzen baditu Estatutu honen 13.1 artikuluko a), b) eta c) paragrafoek ezarritako betekizunak, eta orobat indarrean diren arauek ezar litzaketenak. Kasu horretan daudenei abokatu-elkargoko dekanoak emango die eskatzen den esku-hartzerako gaikuntza. Gaikuntza horrek, jasotzen duenarentzat, eskatzen den auzirako edo auzietarako bakarrik bada ere, berekin dakar abokatuei oro har ematen zaizkien eskubide guztiak baliatzea eta dagozkien betebeharrak bere gain hartzea.

**Artículo 18**

1. La incorporación o comunicación de actuación profesional acredita al Abogado como tal, sin que sea necesario ninguna designación o nombramiento del Poder Judicial o de la Administración pública.

2. El Secretario del Colegio remitirá anualmente la lista de los abogados ejercientes incorporados al mismo, a todos los Juzgados y Tribunales de su territorio, así como a los Centros Penitenciarios y de Detención, lista que se actualizará periódicamente con las altas y bajas. A los abogados que figuren en dichas listas no podrá exigírseles otro comprobante para el ejercicio de su profesión.

3. El Secretario del Colegio o persona en quien delegue podrá comprobar que los abogados que intervengan en las oficinas y actuaciones judiciales figuren incorporados como ejercientes en dicho Colegio o en otro de España, o que, pese a no estarlo, hubieren sido habilitados conforme al último apartado del artículo anterior.

4. Los abogados deberán consignar en todas sus actuaciones el Colegio en que estuvieren incorporados, el número de colegiado y, en su caso, la fecha de la comunicación o habilitación previstas en el artículo precedente.

**Artículo 19**

1. La condición de colegiado se perderá:

a) Por fallecimiento.
b) Por baja voluntaria.
c) Por falta de pago de las cuotas ordinarias o extraordinarias y de las demás cargas colegiales a que vinieren obligados. No obstante, el impago de las cuotas de la Mutualidad General de la Abogacía, Mutualidad de Previsión Social a prima fija, no dará lugar a la inmediata pérdida de la condición de colegiado, sin perjuicio de la responsabilidad disciplinaria que corresponda.
d) Por condena firme que lleve consigo la pena principal o accesoria de inhabilitación para el ejercicio de la profesión.
e) Por sanción firme de expulsión del Colegio, acordada en expediente disciplinario.

2. La pérdida de la condición de colegiado será acordada por la Junta de Gobierno del Colegio en resolución motivada y, una vez firme, será comunicada al Consejo General y al Consejo de Colegios de la Comunidad Autónoma correspondiente, en su caso.

**18. artikulua**

1. Elkargoan kidetuta egoteak edo jarduera profesionalaren komunikazioak berez egiaztatzen du abokatua abokatu gisa, eta ez da beharrezkoa ezein esleipen edo izendapen egitea Botere Judizialak edo Administrazio Publikoak.

2. Elkargoko idazkariak elkargoan sartutako kideen zerrenda bidaliko die, urtero, bere lurraldeko epaitegi eta auzitegi guztiei, eta halaber espetxe eta atxiloketa-zentroei. Zerrenda hori eguneratu egingo da, aldian behin, alta eta bajekin. Zerrenda horietan ageri diren abokatuei ezin eskatuko zaie lanbidean dihardutela egiaztatzeko beste agiririk.

3. Elkargoko idazkariak, edo hark eskuordetzen duen pertsonak, egiaztatu ahal izango du bulego eta jarduketa judizialetan esku hartzen duten abokatuak sartuta daudela, jardule gisa, elkargo horretan edo Espainiako beste batean, edo, sartuta ez badaude ere, aurreko artikuluko azken zenbakiaren arabera gaituak izan direla.

4. Abokatuek adierazi beharra daukate, beren jarduera guztietan, zer elkargotan kidetuta dauden, zein den haien elkargokide-zenbakia, eta zer datatan izan den aurreko artikuluan adierazitako komunikazioa edo gaikuntza, izan bada.

**19. artikulua**

1. Elkargokide-izaera galdu egingo da:

a) Heriotzagatik.
b) Borondatezko bajagatik.
c) Elkargoan nahitaez ordaintzekoak diren kuota arrunt edo bereziak eta gainerako kargak ez ordaintzeagatik. Hala ere, Abokatutzako Mutualitate Orokorraren —gizarte-aurreikuspeneko prima finkoko mutualitatea— kuotak ez ordaintzeak ez du berekin ekarriko elkargokide-izaera berehala galtzea, dagokion diziplina-erantzukizuna gorabehera.

d) Kondena irmo baten ondorioz zigor nagusi edo osagarri gisa lanbidean jarduteko desgaikuntza ezarria izateagatik.
e) Diziplina-espediente batean hala erabakita elkargotik egozteko zehapen irmoa izateagatik.

2. Elkargokide-izaeraren galera elkargoko gobernu-batzarrak erabakiko du, ebazpen arrazoitu batean, eta, behin hura irmo denean, Kontseilu Nagusiari eta dagokion autonomia-erkidegoko elkargo-kontseiluari jakinaraziko zaio.

3. En el caso del párrafo c) del apartado 1 anterior, los colegiados podrán rehabilitar sus derechos pagando lo adeudado, sus intereses al tipo legal y la cantidad que correspondiere como nueva incorporación.

**Artículo 20**

Las Juntas de Gobierno de los Colegios de Abogados acordarán el pase a la situación de no ejerciente de aquellos abogados en quienes concurra alguna de las circunstancias determinantes de incapacidad o incompatibilidad para el ejercicio, mientras aquélla subsista, sin perjuicio de que, si hubiera lugar, resuelvan lo que proceda en vía disciplinaria y con independencia de la situación colegial final en que deba quedar quien resulte incapaz para ejercer la abogacía.

## SECCIÓN 3.ª

### *Prohibiciones, incompatibilidades y restricciones especiales*

**Artículo 21**

Los abogados tienen las siguientes prohibiciones, cuya infracción se sancionará disciplinariamente:

a) Ejercer la abogacía estando incursos en causa de incompatibilidad, así como prestar su firma a quienes, por cualquier causa, no puedan ejercer como abogados.

b) Compartir locales o servicios con profesionales incompatibles, si ello afectare a la salvaguarda del secreto profesional.

c) Mantener vínculos asociativos de carácter profesional que impidan el correcto ejercicio de la abogacía, atendiendo a este respecto a lo previsto en este Estatuto y, singularmente, en el artículo 22.3.

**Artículo 22**

1. El ejercicio de la abogacía es incompatible con cualquier actividad que pueda suponer menosprecio de la libertad, la independencia o la dignidad que le son inherentes.

Asimismo, el abogado que realice al mismo tiempo cualquier otra actividad deberá abstenerse de realizar aquella que resulte incompatible con el correcto ejercicio de la abogacía, por suponer un conflicto de intereses que impida respetar los principios del correcto ejercicio contenidos en este Estatuto.

3. Aurreko 1 zenbakiko c) paragrafoko kasuan, elkargokideek beren eskubideak birgaitu ahal izango dituzte zor dutena ordainduz, legezko tasaren araberako interesak eta berriz sartzeagatik ordaindu beharreko zenbatekoa gehituta.

**20. artikulua**

Abokatu-elkargoen gobernu-batzarrek abokatua ez diharduenaren egoerara pasatzea erabakiko dute kasu hauetan: jarduerarako desgaikuntza edo bateraezintasuna dakarren inguruabarren batean dagoenean, hark dirauen bitartean, hargatik eragotzi gabe, egoki bada, diziplina-bidean dagokiona ebaztea eta alde batera utzita elkargoari dagokionez zer egoeratan gelditu behar duen azkenean abokatutzan jarduteko ezgaiturik gertatzen denak.

## 3. ATALA

## *Debekuak, bateraezintasunak eta murriztapen bereziak*

**21. artikulua**

Abokatuek honako debeku hauek dituzte, eta diziplina-zehapenak ezarriko dira haiek urratzeagatik:

a) Abokatutzan jardutea bateraezintasun-kausaren batean sartuta egonik, edo sinadura ematea arrazoiren batengatik abokatu gisa jardun ez dezakeen norbaiti.

b) Lokalak edo zerbitzu profesionalak partekatzea profesional bateraezinekin, horrek sekretu profesionalaren babesari eragiten badio.

c) Izaera profesionaleko elkartze-loturak izatea abokatutzako jardun egokia eragozten dutenak, Estatutu honetan ezarritakoaren eta bereziki 22.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

**22. artikulua**

1. Abokatutzan jardutea bateraezina da datxezkion askatasuna, independentzia edo duintasuna gutxiestea ekar dezakeen edozein jarduerarekin.

Halaber, aldi berean beste edozein jarduera egiten duen abokatuak ezin izango du egin abokatutzako jardun egokiarekin bateraezina gertatzen den, interes-gatazka bat dakarrelako Estatutu honetan jasotako jardun egokirako printzipioak errespetatzea eragozten duena.

2. Asimismo, el ejercicio de la abogacía será absolutamente incompatible con:

a) El desempeño, en cualquier concepto, de cargos, funciones o empleos públicos en el Estado y en cualquiera de las Administraciones públicas, sean estatales, autonómicas, locales o institucionales, cuya propia normativa reguladora así lo especifique.
b) El ejercicio de la profesión de procurador, graduado social, agente de negocios, gestor administrativo y cualquiera otra cuya propia normativa reguladora así lo especifique.
c) El mantenimiento de vínculos profesionales con cargos o profesionales incompatibles con la abogacía que impidan el correcto ejercicio de la misma.

3. En todo caso, el abogado no podrá realizar actividad de auditoría de cuentas u otras que sean incompatibles con el correcto ejercicio de la abogacía simultáneamente para el mismo cliente o para quienes lo hubiesen sido en los tres años precedentes.

No se entenderá incompatible esta prestación si se realiza por personas jurídicas distintas y con Consejos de Administración diferentes.

**Artículo 23**

1. El abogado a quien afecte alguna de las causas de incompatibilidad establecidas en el artículo anterior deberá comunicarlo sin excusa a la Junta de Gobierno del Colegio y cesar inmediatamente en la situación de incompatibilidad, entendiéndose que renuncia al ejercicio profesional si no lo manifiesta por escrito en el plazo de treinta días, con lo que automáticamente será dado de baja en el mismo.

2. La infracción de dicho deber de cesar en la situación de incompatibilidad, así como su ejercicio con infracción de las incompatibilidades establecidas en el artículo anterior, directamente o por persona interpuesta, constituirá infracción muy grave, sin perjuicio de las demás responsabilidades que correspondan.

**Artículo 24**

1. *(Derogado).*

2. El abogado a quien afecte tal incompatibilidad deberá abstenerse de la defensa que en tales asuntos le haya podido ser encomendada. Dicha obligación de abstención se entiende sin perjuicio del derecho de recusación que pueda asistir al litigante contrario.

2. Era berean, abokatutzan jardutea guztiz bateraezina da honako hauekin:

a) Funtzio edo enplegu publikoak betetzea, edozein kontzeptutan, Estatuan edo edozein administrazio publikotan, izan estatala, autonomikoa, tokikoa edo instituzionala, haren berariazko araudiak hala zehazten duenean.
b) Prokuradore, lan-harremanetako gradudun, negozio-agente edo administrazio-kudeatzaile lanbideetan jardutea, edo bere erregulazio-araudiak bateraezina dela zehazten duen beste edozeinetan.
c) Lotura profesionalak izatea abokatutzarekin bateraezinak diren kargu edo lanbideekin, abokatutzan egoki jardutea eragozten dutenak.

3. Abokatuak ezin izango du, ezein kasutan, kontu-ikuskaritzako jarduerarik edo abokatutzako jardun egokiarekin bateraezina den beste jarduerarik egin aldi berean bezero berarentzat edo aurreko hiru urteetan bezero izan dituenentzat.

Zerbitzu hori ez da bateraezintzat joko pertsona juridiko ezberdin eta administrazio-kontseilu bana dutenek egiten badituzte.

**23. artikulua**

1. Aurreko artikuluan ezarritako bateraezintasun-kausetakoren baten eraginpean dagoen abokatuak horren berri eman beharko dio, hutsik egin gabe, elkargoko gobernu-batzarrari, eta berehala utzi bateraezintasun-egoera. Ulertuko da jardun profesionalari uko egiten diola ez badu idatziz adierazten hogeita hamar eguneko epean, eta automatikoki baja emango zaio hartan.

2. Bateraezintasun-egoera hori uzteko betebeharra urratzea, eta orobat aurreko artikuluan ezarritako bateraezintasunak urratuz jardutea, zuzenean edo bitarteko pertsona baten bidez, arau-hauste oso larria izango da, dagozkion gainerako erantzukizunak izateaz gain.

**24. artikulua**

1. *(Indargabetua).*

2. Bateraezintasun horren eraginpean dagoen abokatuak ezin du defentsarik egin halako auzietan, eskatzen bazaio ere. Abstentzio-betebehar horretaz aparte, errekusazio-eskubidea izan dezake kontrako auzilariak.

**Artículo 25**

1. El abogado podrá realizar publicidad de sus servicios, que sea digna, leal y veraz, con absoluto respeto a la dignidad de las personas, a la legislación sobre publicidad, sobre defensa de la competencia y competencia desleal, ajustándose, en cualquier caso, a las normas deontológicas.

2. Se considerará contraria a las normas deontológicas de la abogacía la publicidad que suponga:

a) Revelar directa o indirectamente hechos, datos o situaciones amparados por el secreto profesional.
b) Incitar genérica o concretamente al pleito o conflicto.
c) Ofrecer sus servicios, por sí o mediante terceros, a víctimas de accidentes o desgracias, a sus herederos o a sus causahabientes, en el momento en que carecen de plena y serena libertad para la elección de abogado por encontrarse sufriendo dicha reciente desgracia personal o colectiva.
d) Prometer la obtención de resultados que no dependan exclusivamente de la actividad del abogado.
e) Hacer referencia directa o indirecta a clientes del propio abogado.
f) Utilizar los emblemas o símbolos colegiales y aquellos otros que por su similitud pudieran generar confusión, al reservarse su uso para la publicidad institucional que pueda realizarse en beneficio de la profesión en general.

3. Los abogados que presten sus servicios en forma permanente u ocasional a empresas individuales o colectivas deberán exigir que las mismas se abstengan de efectuar publicidad respecto de tales servicios que no se ajuste a lo establecido en este Estatuto General.

**Artículo 26**

1. Los abogados tendrán plena libertad de aceptar o rechazar la dirección del asunto, así como de renunciar al mismo en cualquier fase del procedimiento, siempre que no se produzca indefensión al cliente.

2. Los abogados que hayan de encargarse de la dirección profesional de un asunto encomendado a otro compañero en la misma instancia deberán solicitar su venia, salvo que exista renuncia escrita e incondicionada a proseguir su intervención por parte del anterior letrado, y en todo caso, recabar del mismo la información necesaria para continuar el asunto.

**25. artikulua**

1. Abokatuak bere zerbitzuen publizitatea egin dezake; publizitate duina, leiala eta egiatia izan behar du; osotara errespetatu behar du pertsonen duintasuna, publizitateari buruzko legeria, lehiaren defentsari eta lehia desleialari buruzkoa, eta, beti, arau deontologikoen araberakoa izan.

2. Publizitatea abokatutzaren arau deontologikoen kontrakotzat joko da honelako zerbait dakarrenean:

a) Sekretu profesionalak babestutako egitate, datu edo egoerak agerian jartzea, zuzenean edo zeharka.
b) Auzitara edo gatazkara bultzatzea, orokorrean edo zehazki.
c) Zerbitzuak eskaintzea, zuzenean edo hirugarren batzuen bidez, istripu edo ezbeharren biktima direnei, haien oinordekoei edo kausadunei, une hartan ez daukatenean abokatua hautatzeko askatasun oso eta soseguzkorik, gertatu berri den ezbehar pertsonal edo kolektibo hori jasaten ari direlako.
d) Abokatuaren jardunaren mende soilik ez dauden emaitzak lortuko direla agintzea.
e) Zuzenean edo zeharka abokatuaren beraren bezeroei erreferentzia egitea.
f) Elkartearen ikurrak edo sinboloak erabiltzea, edo haien antzekoak izateagatik nahasmena sor dezaketen beste batzuk, oro har lanbidearen onerako egin daitekeen publizitate instituzionalerako erreserbatzen baita haien erabilera.

3. Beren zerbitzuak enpresa indibidual edo kolektiboei iraunkorki edo noizbehinka eskaintzen dizkieten abokatuek eskatu beharko dute enpresa horiek ez dezatela zerbitzuon publizitaterik egin Estatutu Orokor honekin bat ez datorrenik.

**26. artikulua**

1. Abokatuek askatasun osoa izango dute auziaren ardura onartzeko edo ukatzeko, eta orobat prozeduraren edozein unetan hari uko egiteko, betiere ez bazaio bezeroari defentsa-gabezia eragiten.

2. Auzialdi berean beste kide bati gomendatutako gai baten zuzendaritza profesionalaz arduratu behar duten abokatuek haren baimena eskatu beharko dute, non eta ez dagoen aurreko letraduak bere lanarekin jarraitzeari egindako uko idatzizko eta baldintzagabe bat, eta, betiere, auziarekin jarraitzeko behar den informazio guztia eskatu beharko diote hari.

3. La venia, excepto caso de urgencia a justificar, deberá ser solicitada con carácter previo y por escrito, sin que el letrado requerido pueda denegarla y con la obligación por su parte de devolver la documentación en su poder y facilitar al nuevo letrado la información necesaria para continuar la defensa.

4. El letrado sustituido tendrá derecho a reclamar los honorarios que correspondan a su intervención profesional y el sustituto tendrá el deber de colaborar diligentemente en la gestión de su pago.

### Sección 4.ª

### *Ejercicio individual, colectivo y multiprofesional*

**Artículo 27**

1. El ejercicio individual de la abogacía podrá desarrollarse por cuenta propia, como titular de un despacho, o por cuenta ajena, como colaborador de un despacho individual o colectivo. No se perderá la condición de abogado que ejerce como titular de su propio despacho individual cuando:

a) El abogado tenga en su bufete pasantes o colaboradores, con o sin relación laboral con los mismos.
b) El abogado comparta el bufete con su cónyuge, ascendientes, descendientes o parientes hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad.
c) El abogado comparta los locales, instalaciones, servicios u otros medios con otros abogados, pero manteniendo la independencia de sus bufetes, sin identificación conjunta de los mismos ante la clientela.

d) El abogado concierte acuerdos de colaboración para determinados asuntos o clases de asuntos con otros abogados o despachos colectivos, nacionales o extranjeros, cualquiera que sea su forma.
e) El abogado constituya una sociedad unipersonal para dicho ejercicio de la abogacía, que habrá de observar, en cuanto pueda aplicársele, lo dispuesto en el artículo siguiente para el ejercicio colectivo.

2. El abogado titular de un despacho profesional individual responderá profesionalmente frente a su cliente de las gestiones o actuaciones que efectúen sus pasantes o colaboradores, sin perjuicio de la facultad de repetir frente a los mismos si procediera. No obstante, los pasantes y colaboradores quedan some-

3. Baimena, justifikatu beharreko urgentziazko kasuetan izan ezik, aurretiaz eta idatziz eskatu beharko da; errekerimendua egin zaion letraduak ezin izango du ukatu, eta behartuta egongo da bere esku duen dokumentazioa itzultzera eta abokatu berriari defentsarekin jarraitzeko beharrezko den informazio guztia ematera.

4. Ordeztutako abokatuak eskubidea izango du bere esku-hartze profesionalari dagozkion ordainsariak jasotzeko, eta ordezkoak arduraz lagundu beharko du ordainketa horri dagokiona kudeatzen.

## 4. ATALA

## *Bakarkako jarduna, jardun kolektiboa eta jardun multiprofesionala*

### 27. artikulua

1. Abokatutzaren bakarkako jarduna gara daiteke norberaren kabuz, bulego baten titular gisa, edo besteren kontura, bulego indibidual edo kolektibo baten laguntzaile gisa. Ez da galduko norberaren bakarkako bulegoaren titular den abokatu gisa dihardduenaren kondizioa honako kasu hauetan:

a) Abokatuak pasante edo laguntzaileak dauzkanean bulegoan, haiekin lan-harremana duela edo izan gabe.
b) Abokatuak bulegoa partekatzen duenean ezkontidearekin, aurretikoekin, ondorengoekin edo bigarren gradurainoko odolkidetasuna edo kidetasuna duten senideekin.
c) Abokatuak lokalak, instalazioak, zerbitzuak edo bestelako baliabide batzuk partekatzen dituenean beste abokatu batzuekin, baina bakoitzak bere bulegoaren independentzia gordez, bezeroen aurrean denak bateraturik identifikatu gabe.
d) Abokatuak lankidetza-hitzarmenak egiten dituenean gai edo gai mota batzuetarako beste abokatu batzuekin edo bulego kolektibo batzuekin, izan estatukoak edo atzerrikoak, edozein dela ere haien forma.
e) Abokatuak sozietate unipertsonal bat eratzen duenean abokatutzako jardun horretarako, zeinak gorde beharko baitu, aplikatzekoa zaion guztian, hurrengo artikuluan jarduera kolektiborako xedatzen dena.

2. Bulego profesional indibidual baten titular den abokatuak erantzukizun profesionala du, bere bezeroaren aurrean, haren pasante edo laguntzaileek egiten dituzten kudeaketa edo jardueren gainean, hargatik eragotzi gabe haien aurrean berreskatzeko aukera Hala ere, pasante eta laguntzaileak betebehar

tidos a las obligaciones deontológicas y asumirán su propia responsabilidad disciplinaria. Los honorarios a cargo del cliente se devengarán a favor del titular del despacho, aun en el caso de que las actuaciones fueren realizadas por otros letrados por delegación o sustitución del mismo; y a su vez, dicho titular del despacho responderá personalmente de los honorarios debidos a los letrados a los que encargue o delegue actuaciones aun en el caso de que el cliente dejase de abonárselos, salvo pacto escrito en contrario.

3. El ejercicio de la abogacía por cuenta ajena en régimen de especial colaboración habrá de pactarse expresamente por escrito, fijando las condiciones, duración, alcance y régimen económico de la colaboración.

4. La abogacía también podrá ejercerse por cuenta ajena bajo régimen de derecho laboral, mediante contrato de trabajo formalizado por escrito y en el que habrá de respetarse la libertad e independencia básicas para el ejercicio de la profesión y expresarse si dicho ejercicio fuese en régimen de exclusividad.

5. Los Colegios de Abogados podrán exigir la presentación de los contratos de colaboración y de trabajo a fin de verificar que se ajustan a lo establecido en este Estatuto General. En las actuaciones que realice el colaborador en régimen especial o en régimen de derecho laboral, por sustitución o por delegación del despacho con el que colabore, deberá hacer constar en nombre y por cuenta de quien actúa.

**Artículo 28**

1. Los abogados podrán ejercer la abogacía colectivamente, mediante su agrupación bajo cualquiera de las formas lícitas en derecho, incluidas las sociedades mercantiles.

2. La agrupación habrá de tener como objeto exclusivo el ejercicio profesional de la abogacía y estar integrada exclusivamente por abogados en ejercicio, sin limitación de número. No podrá compartir locales o servicios con profesionales incompatibles, si ello afectare a la salvaguarda del secreto profesional. Tanto el capital como los derechos políticos y económicos habrán de estar atribuidos únicamente a los abogados que integren el despacho colectivo.

3. La forma de agrupación deberá permitir en todo momento la identificación de sus integrantes, habrá de constituirse por escrito e inscribirse en el Registro Especial correspondiente al Colegio donde tuviese su domicilio. En dicho Registro se inscribirán su composición y las altas y bajas que se produz-

deontologikoen mende geratzen dira eta beren gain hartuko dute beren diziplina-erantzukizuna. Bezeroaren konturako ordainsariak bulegoaren titularraren kontura sorraraziko dira, are jarduerak beste abokatu batzuek egin badituzte ere haren ordezkari edo ordezko moduan; eta, aldi berean, bulegoaren titular den horrek pertsonalki erantzungo du jarduerak enkargatzen edo delegatzen dizkien abokatuei zor zaizkien ordainsariez, are bezeroak ordaintzen ez dizkionean ere, non eta ez den besterik hitzartu idatziz.

3. Abokatutzan besteren konturako lankidetza bereziko araubidean jardutea espresuki hitzartu beharko da idatziz, eta hitzarmen horretan zehaztu lankidetzaren iraupena, irismena eta araubide ekonomikoa.

4. Besteren konturako lan-zuzenbideko araubidean ere jardun daiteke abokatutzan, idatziz formalizatutako lan-kontratu baten bitartez; kontratu horretan, errespetatu beharko dira lanbidean jarduteko oinarrizko diren askatasuna eta independentzia, eta, esklusibotasun-araubidean jardutekotan, hala adierazi beharko da.

5. Abokatuen elkargoek exijitu dezakete lankidetza-kontratuak eta lan-kontratuak aurkeztu daitezela, Estatutu Orokor honek ezartzen duenaren araberakoak direla egiaztatzeko. Araubide berezian edo lan-zuzenbideko araubidean lankidetzan diharduenak, jarduerak egiten dituenean berarekin lankidetzan diharduenaren ordez edo eskuordetzaz, adierazi beharko du noren izenean eta kontura ari den.

**28. artikulua**

1. Abokatuak jardun daitezke abokatutzan kolektiboki, zuzenbidean zilegi diren moduetako edozeinetan elkarturik, merkataritza-sozietateak barne.

2. Elkartearen helburu bakarra abokatutzan profesionalki jarduteak izan behar du, eta elkartea osatzen duten guztiek jardunean diren abokatuak izan behar dute, kopuru-mugarik gabe. Ezin izango ditu lokalak edo zerbitzuak partekatu profesional bateraezinekin, horrek sekretu profesionalaren babesari eragiten badio. Hala kapitalak nola eskubide politiko eta ekonomikoek bulego kolektiboa osatzen duten abokatuei soilik esleiturik egon behar dute.

3. Elkartze-moduak aukera eman behar du noiznahi hura osatzen dutenak identifikatzeko; idatziz eratua izan behar du, eta egoitza daukan elkargoari dagokion erregistro berezian inskribatu. Erregistro horretan inskribatuko dira elkartearen osaera eta halaber gertatzen diren altak eta bajak. Bulego kolektibo

can. Los abogados que formen parte de un despacho colectivo estarán obligados personalmente a solicitar las inscripciones correspondientes.

4. Los abogados agrupados en un despacho colectivo no podrán tener despacho independiente del colectivo y en las intervenciones profesionales que realicen y en las minutas que emitan deberán dejar constancia de su condición de miembros del referido colectivo. No obstante, las actuaciones correspondientes a la asistencia jurídica gratuita tendrán carácter personal, aunque podrá solicitarse del Colegio su facturación a nombre del despacho colectivo.

5. Los abogados miembros de un despacho colectivo tendrán plena libertad para aceptar o rechazar cualquier cliente o asunto del despacho, así como plena independencia para dirigir la defensa de los intereses que tengan encomendados. Las sustituciones que se produzcan se atendrán a las normas de funcionamiento del respectivo despacho, sin precisar la solicitud de venia interna. Los honorarios corresponderán al colectivo sin perjuicio del régimen interno de distribución que establezcan las referidas normas.

6. La actuación profesional de los integrantes del despacho colectivo estará sometida a la disciplina colegial del Colegio en cuyo ámbito se efectúa, respondiendo personalmente el abogado que la haya efectuado. No obstante, se extenderán a todos los miembros del despacho colectivo el deber de secreto profesional, las incompatibilidades que afecten a cualquiera de sus integrantes y las situaciones de prohibición de actuar en defensa de intereses contrapuestos con los patrocinados por cualquiera de ellos.

7. La responsabilidad civil que pudiese tener el despacho colectivo será conforme al régimen jurídico general que corresponda a la forma de agrupación utilizada. Además, todos los abogados que hayan intervenido en un asunto responderán civilmente frente al cliente con carácter personal, solidario e ilimitado.

8. Para la mejor salvaguarda del secreto profesional y de las relaciones de compañerismo, las normas reguladoras del despacho colectivo podrán someter a arbitraje colegial las discrepancias que pudieran surgir entre sus miembros a causa del funcionamiento, separación o liquidación de dicho despacho.

**Artículo 29**

1. Los abogados podrán asociarse en régimen de colaboración multiprofesional con otros profesionales liberales no incompatibles, sin limitación de nú-

baten parte diren abokatuak pertsonalki behartuta egongo dira dagozkien inskripzioak eskatzera.

4. Bulego kolektibo batean elkartutako abokatuek ezingo dute kolektibotik independentea den beste bulegorik izan, eta kolektibo horretako kide direla agerraraziko dute beren esku-hartze profesionaletan eta igortzen dituzten minutetan. Doako laguntza juridikoari dagozkion esku-hartzeek, hala ere, izaera pertsonala izango dute, baina bulego kolektiboaren izenean fakturatzea eskatu ahal izango zaio elkargoari.

5. Bulego kolektibo bateko kide diren abokatuek eskubide osoa izango dute bulegoko edozein bezero edo auzi onartzeko edo baztertzeko, eta, halaber, independentzia osoa izango dute gomendatu zaizkien interesen defentsa bideratzeko. Ordezpenak egiten direnean, dagokion bulegoaren funtzionamendu-arauei jarraituko zaie, barruko baimen-eskaera zehaztu gabe. Ordainsariak kolektiboari dagozkionak izango dira, edozein dela ere aipatutako arauek ezartzen duten barne-banaketako araubidea.

6. Bulego kolektiboa osatzen dutenen jarduera profesionala, elkargo-diziplinari dagokionez, jarduera hori egiten den esparruko elkargoaren mende egongo da, eta jardun duen abokatuak erantzungo du pertsonalki. Hala ere, bulego kolektiboko kide guztiei hedatuko zaizkie: sekretu profesionalaren eginbeharra, kideetako edozeini dagozkion bateraezintasun profesionalak, eta haietako edozeinek defendatutako interesekin kontrajarrita dauden beste interes batzuen defentsan jardutea debeku den egoerak.

7. Bulego kolektiboaren erantzukizun zibila, daukanean, erabilitako elkartze-motari dagokion araubide juridiko orokorraren araberakoa izango da. Gainera, auzi batean parte hartu duten abokatu guztiek erantzukizun zibil pertsonal, solidario eta mugagabea izango dute bezeroaren aurrean.

8. Sekretu profesionala eta kidetasun-harremanak hobeto zaintzeko, bulego kolektiboa erregulatzen duten arauek elkargoaren arbitrajepean jarri ahal izango dituzte kideen artean sortzen diren desadostasunak, bulegoaren funtzionamendua, bereizketa edo likidazioa dela-eta sortuak.

**29. artikulua**

1. Abokatuak lankidetza multiprofesionalaren araubidean elkartu ahal izango dira bateraezinak ez diren beste profesional liberal batzuekin, kopu-

mero y sin que ello afecte a su plena capacidad para el ejercicio de la profesión ante cualquier jurisdicción y Tribunal, utilizando cualquier forma lícita en derecho, incluidas las sociedades mercantiles, siempre que se cumplan las siguientes condiciones:

a) Que la agrupación tenga por objeto la prestación de servicios conjuntos determinados, incluyendo servicios jurídicos específicos que se complementen con los de las otras profesiones.
b) Que la actividad a desempeñar no afecte al correcto ejercicio de la abogacía por los miembros abogados.
c) Que se cumplan las condiciones establecidas en el artículo anterior en lo que afecte al ejercicio de la abogacía, salvo lo expresado bajo el apartado 2 del mismo, que no resultará aplicable, o en el apartado 4 del que solamente será aplicable la obligación de dejar constancia de la condición de miembro del colectivo multiprofesional en las actuaciones que se realicen y minutas que se emitan en su ámbito.

2. En los Colegios de Abogados se creará un Registro Especial donde se inscribirán las agrupaciones en régimen de colaboración multiprofesional.

3. Los miembros abogados deberán separarse cuando cualquiera de sus integrantes incumpla las normas sobre prohibiciones, incompatibilidades o deontología propias de la abogacía.

# TÍTULO III
# DERECHOS Y DEBERES DE LOS ABOGADOS

## CAPÍTULO I
## De carácter general

### Artículo 30

El deber fundamental del abogado, como partícipe en la función pública de la Administración de Justicia, es cooperar a ella asesorando, conciliando y defendiendo en derecho los intereses que le sean confiados. En ningún caso la tutela de tales intereses puede justificar la desviación del fin supremo de Justicia a que la abogacía se halla vinculada.

ru-mugarik gabe, eta horrek ez die galaraziko gaitasun osoa izatea edozein jurisdikzio edo auzitegiren aurrean lanbidean jarduteko, zuzenbidean zilegi den edozein forma erabiliz jardun ere, merkataritza-sozietateak barne, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Elkartearen xede bakarra zerbitzu bateratu jakin batzuk ematea izan dadila, barne harturik beste lanbide batzuenekin osagarri diren zerbitzu juridiko espezifikoak.
b) Egin beharreko jarduerak ez dezala eraginik izan kide diren abokatuek abokatutzan egoki jarduteko orduan.
c) Bete daitezela aurreko artikuluan abokatutzako jarduerari dagokionez ezarritako baldintzak, salbu haren 2. zenbakian adierazitakoa, ez baita aplikatzekoa, edo 4. zenbakikoa, hartatik aplikatzekoa den bakarra zera baita, haren esparruan egiten diren jardueretan eta jaulkitzen diren minutetan nahitaez adierazi beharra talde multiprofesionaleko kidea dela.

2. Abokatu-elkargoetan, erregistro berezi bat sortuko da, lankidetza multiprofesionalaren araubidean diharduten elkarteak hartan inskribatzeko.

3. Abokatu kideek elkarrengandik bereizi egin beharko dute haietako edozeinek arauak urratzen baditu abokatutzako debekuen, bateraezintasunen edo deontologiaren arloan.

## III. TITULUA

## ABOKATUEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

### I. KAPITULUA

### Izaera orokorrekoa

#### 30. artikulua

Abokatuaren funtsezko eginbeharra da, Justizia Administrazioaren funtzio publikoan parte hartzen duen aldetik, administrazio horrekin lankidetzan aritzea, aholkatuz, bateratuz eta zuzenbidean defendatuz berari fidatzen zaizkion interesak. Halako interesen defentsak ez dezake justifikatu, ezein kasutan, abokatutzari datxekion justizia-xede gorenetik desbideratzea.

**Artículo 31**

Son también deberes generales del abogado:

a) Cumplir las normas legales, estatutarias y deontológicas, así como los acuerdos de los diferentes órganos corporativos.

b) Mantener despacho profesional abierto, propio, ajeno o de empresa, en el territorio del Colegio en cuyo ámbito esté incorporado y ejerza habitualmente su profesión.

c) Comunicar su domicilio y los eventuales cambios del mismo al Colegio al que esté incorporado.

**Artículo 32**

1. De conformidad con lo establecido por el artículo 437.2_de la Ley Orgánica del Poder Judicial, los abogados deberán guardar secreto de todos los hechos o noticias que conozcan por razón de cualquiera de las modalidades de su actuación profesional, no pudiendo ser obligados a declarar sobre los mismos.

2. En el caso de que el Decano de un Colegio, o quien estatutariamente le sustituya, fuere requerido en virtud de norma legal o avisado por la autoridad judicial, o en su caso gubernativa, competente para la práctica de un registro en el despacho profesional de un abogado, deberá personarse en dicho despacho y asistir a las diligencias que en el mismo se practiquen, velando por la salvaguarda del secreto profesional.

**Artículo 33**

1. El abogado tiene derecho a todas las consideraciones honoríficas debidas a su profesión y tradicionalmente reconocidas a la misma.

2. El abogado, en cumplimiento de su misión, actuará con libertad e independencia, sin otras limitaciones que las impuestas por la Ley y por las normas éticas y deontológicas.

3. El deber de defensa jurídica que a los abogados se confía es también un derecho para los mismos por lo que, además de hacer uso de cuantos remedios o recursos establece la normativa vigente, podrán reclamar, tanto de las autoridades como de los Colegios y de los particulares, todas las medidas de ayuda en su función que les sean legalmente debidas.

**31. artikulua**

Abokatuaren eginbehar orokorrak dira hauek ere:

a) Legezko, estatutuzko eta deontologiazko arauak betetzea, eta orobat organo korporatiboen erabakiak.

b) Bulego profesionala irekia izatea, norberarena edo enpresarena, kide den elkargoarena den eta berak lanbidean jardun ohi duen esparruan.

c) Helbidearen berri ematea kide den elkargoan, eta, aldatuz gero, aldaketaren berri ematea.

**32. artikulua**

1. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 437.2 artikuluak ezarritakoaren arabera, abokatuek sekretupean gorde beharko dituzte beren jarduera profesionalaren edozein modalitateren bidez jakindako gertaera edo berriak, eta ezin izango dira behartu haiei buruz deklaratzera.

2. Elkargo bateko dekanoari, edo estatutuzko moduan hura ordezten duenari, errekerimendua egiten bazaio lege-arau baten indarrez edo abisu ematen badio abokatu baten bulego profesionalean erregistro bat egiteko eskudun den agintari judizial edo gobernutar batek, hark agertu egin beharko du bulegoan, eta han egiten diren eginbideetan presente egon, sekretu profesionala gorde dadin zainduz.

**33. artikulua**

1. Abokatuak eskubidea du beraren lanbideari zor zaizkion eta tradizioz aitortu ohi zaizkion ohorezko trataera guztiak jasotzeko.

2. Abokatuak, bere eginkizuna betetzean, askatasunez eta independentziaz jardungo du, beste mugarik ez duela baizik legeak eta arau etiko eta deontologikoek ezartzen dizkiotenak.

3. Abokatuei fidatzen zaien defentsa juridikoaren eginbeharra eskubide ere bada berentzat, eta, beraz, indarrean den araudiak ezartzen dituen bezainbat erremedio edo baliabide erabiltzeaz gain, bere eginkizunaren laguntzarako legez zor zaien neurri oro erreklamatu ahal izango dute, hala agintarien nola elkargoen eta partikularren aldetik.

4. Si el letrado entendiere que no se le guarda el respeto debido a su misión, libertad e independencia, podrá hacerlo presente al Juez o Tribunal para que ponga el remedio adecuado.

## CAPÍTULO II

### En relación con el Colegio y con los demás colegiados

**Artículo 34**

Son deberes de los colegiados:

a) Estar al corriente en el pago de sus cuotas, ordinarias o extraordinarias, y levantar las demás cargas colegiales, cualquiera que sea su naturaleza, en la forma y plazos al efecto establecidos. A tales efectos se consideran cargas corporativas todas las impuestas por el Colegio, el Consejo de Colegios de la Comunidad Autónoma, en su caso, o el Consejo General de la Abogacía, así como las correspondientes a la Mutualidad General de la Abogacía, Mutualidad de Previsión Social a prima fija.

b) Denunciar al Colegio todo acto de intrusismo que llegue a su conocimiento, así como los casos de ejercicio ilegal, sea por falta de colegiación, sea por suspensión o inhabilitación del denunciado, o por estar incurso en supuestos de incompatibilidad o prohibición. Así como aquellos supuestos de falta de comunicación de la actuación profesional.

c) Denunciar al Colegio cualquier atentado a la libertad, independencia o dignidad de un abogado en el ejercicio de sus funciones.

d) No intentar la implicación del abogado contrario en el litigio o intereses debatidos, ni directa ni indirectamente, evitando incluso cualquier alusión personal al compañero y tratándole siempre con la mayor corrección.

e) Mantener como materia reservada las conversaciones y correspondencia habidas con el abogado o abogados contrarios, con prohibición de revelarlos o presentarlos en juicio sin su previo consentimiento. No obstante, por causa grave, la Junta de Gobierno del Colegio podrá discrecionalmente autorizar su revelación o presentación en juicio sin dicho consentimiento previo.

**Artículo 35**

Son derechos de los colegiados:

4. Abokatuak irizten badio ez zaiola behar den errespetua gordetzen beraren eginkizunari, askatasunari eta independentziari, epailearen edo auzitegiaren aurrean adierazi ahal izango du hori, hark konponbide egokia jar dezan.

## II. KAPITULUA

## Elkargoari eta gainerako elkargokideei dagokienez

### 34. artikulua

Elkargokideen eginbeharrak dira:

a) Egunean egotea kuota arrunt nahiz berezien ordainketan, eta gainerako elkargo-kargak altxatzea, edozein dela ere haien izaera, hartarako ezarritako moduan eta epeetan. Karga korporatibotzat hartzen dira elkargoak, autonomia-erkidegoko elkargo-kontseiluak edo Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak ezarritako karga guztiak, eta halaber Abokatutzako Mutualitate Orokorrari —gizarte-aurreikuspeneko prima finkoko mutualitatea— dagozkionak.

d) Elkargoari salatzea jakiten duen intrusismo-egintza oro, eta orobat edozein jarduera legez kanpoko, dela elkargokide ez izateagatik, dela salatua geldieran edo desgaitua izateagatik, edo bateraezintasun- edo debeku-kasuren batean izateagatik. Orobat jarduera profesionala jakinarazten ez den kasuetan.

c) Elkargoari salatzea abokatuek beren eginkizunetan dihardutela jasandako askatasunaren, independentziaren edo duintasunaren kontrako atentatu oro.

d) Ez saiatzea aurkako abokatua inplikatzen auzian edo eztabaidatutako interesetan, ez zuzenean ez zeharka; lankidearen edozein aipamen pertsonal ere saihestea eta betiere zuzentasun osoz tratatzea.

e) Gai erreserbatu gisa mantentzea aurkako abokatuarekin edo abokatuekin izandako elkarrizketak eta gutun-trukeak, debeku izanik halakoak epaiketan agertzea edo aurkeztea haien aurretiazko baimenik gabe. Hala ere, arrazoi larririk bada, elkargoko gobernu-batzarrak aukera izango du halakoak aurretiazko baimenik gabe ere agertzea edo aurkeztea baimentzeko.

### 35. artikulua

Elkargokideen eskubideak dira:

a) Participar en la gestión corporativa y, por tanto, ejercer los derechos de petición, de voto y de acceso a los cargos directivos, en la forma que establezcan las normas legales o estatutarias.

b) Recabar y obtener de todos los órganos corporativos la protección de su independencia y lícita libertad de actuación profesional.

c) Aquellos otros que les confieran los Estatutos particulares de cada Colegio.

## CAPÍTULO III

### En relación con los Tribunales

**Artículo 36**

Son obligaciones del abogado para con los órganos jurisdiccionales la probidad, lealtad y veracidad en cuanto al fondo de sus declaraciones o manifestaciones, y el respeto en cuanto a la forma de su intervención.

**Artículo 37**

1. Los abogados comparecerán ante los Tribunales vistiendo toga y, potestativamente, birrete, sin distintivo de ninguna clase, salvo el colegial, y adecuarán su indumentaria a la dignidad y prestigio de la toga que visten y al respeto a la Justicia.

2. Los abogados no estarán obligados a descubrirse más que a la entrada y salida de las Salas a que concurran para las vistas y en el momento de solicitar la venia para informar.

**Artículo 38**

1. Los abogados tendrán derecho a intervenir ante los Tribunales de cualquier jurisdicción sentados dentro del estrado, al mismo nivel en que se halle instalado el Tribunal ante quien actúen, teniendo delante de sí una mesa y situándose a los lados del Tribunal de modo que no den la espalda al público, siempre con igualdad de trato que el Ministerio Fiscal o la Abogacía del Estado.

2. El letrado actuante podrá ser auxiliado o sustituido en el acto de la vista o juicio o en cualquier otra diligencia judicial por un compañero en ejercicio, incorporado o cuya actuación haya sido debidamente comunicada al Colegio. Para la sustitución bastará la declaración del abogado sustituto, bajo su propia responsabilidad.

a) Parte hartzea kudeaketa korporatiboan, eta, beraz, eskariak egiteko, bozkatzeko eta zuzendaritza-karguetara irispidea izateko eskubideak egikaritzea, legezko edo estatutuzko arauek ezartzen duten moduan.

b) Organo korporatibo guztiei eskatu ahal izatea babes dezatela haien independentzia eta jarduera profesionalerako askatasun zilegia.

c) Elkargo bakoitzaren estatutu partikularrek ematen dizkieten beste guztiak.

## III. KAPITULUA

## Auzitegien inguruan

### 36. artikulua

Abokatuak jurisdikzio-organoekin dituen betebeharrak dira: bere deklarazio edo adierazpenak zuzenak, leialak eta egiazkoak izatea, eta esku hartzeko moduan begirunea izatea.

### 37. artikulua

1. Abokatuak toga jantzita agertuko dira auzitegien aurrean, eta aukeran dute birreta janztea, inolako bereizgarririk gabe, salbu elkargoari dagokiona; eta beren janzkera egokitu beharra daukate janzten duten togaren duintasun eta ospera eta Justiziaren errespetura.

2. Abokatuak ez daude behartuta buru-hutsik gelditzera salbu ikustaldietan salara sartzean eta hartatik irtetean eta informatzeko baimena eskatzeko unean.

### 38. artikulua

1. Abokatuek eskubidea dute edozein jurisdikziotako auzitegien aurrean agertzean estratuaren barruan eserita egoteko, epaimahaia dagoen maila berean, aurrean mahai bat dutela eta epaimahaiaren aldeetan kokaturik publikoari bizkarra ez emateko moduan, beti Ministerio Fiskalaren edo Estatuaren Abokatuaren tratu berdina dutela.

2. Diharduen abokatua jardunean den beste kide batek lagundu edo ordeztu dezake ikustaldi edo epaiketa-ekitaldian, edo beste edozein eginbide judizialetan, elkargoan sartua bada edo haren jardueraren berri behar bezala eman bazaio elkargoari. Ordezteko, nahikoa izango da abokatu ordeztailearen adierazpena, bere erantzukizunaren pean.

3. Los abogados que se hallen procesados o encartados y se defiendan a sí mismos o colaboren con su defensor usarán toga y ocuparán el sitio establecido para los letrados.

**Artículo 39**

1. En los Tribunales se designará un sitio separado del público, con las mismas condiciones del señalado para los abogados actuantes, a fin de que puedan ocuparlo los demás letrados que, vistiendo toga, quieran presenciar los juicios y vistas públicas.

2. En las sedes de Juzgados y Tribunales se procurará la existencia de dependencias dignas y suficientes para su utilización exclusiva por los abogados en el desarrollo de sus funciones.

**Artículo 40**

Los abogados esperarán un tiempo prudencial sobre la hora señalada por los órganos judiciales para las actuaciones en que vayan a intervenir, transcurrido el cual podrán formular la pertinente queja ante el mismo órgano e informar del retraso a la Junta de Gobierno del correspondiente Colegio para que pueda adoptar las iniciativas pertinentes.

**Artículo 41**

Si el abogado actuante considerase que la autoridad, Tribunal o Juzgado coarta la independencia y libertad necesarias para cumplir sus deberes profesionales, o que no se le guardase la consideración debida a su profesión, podrá hacerlo constar así ante el propio Juzgado o Tribunal bajo la fe del Secretario y dar cuenta a la Junta de Gobierno. Dicha Junta, si estimare fundada la queja, adoptará las medidas oportunas para amparar la libertad, independencia y prestigio profesionales.

## CAPÍTULO IV

### En relación con las partes

**Artículo 42**

1. Son obligaciones del abogado para con la parte por él defendida, además de las que se deriven de sus relaciones contractuales, el cumplimiento de la misión de defensa que le sea encomendada con el máximo celo y diligencia y guardando el secreto profesional.

3. Prozesaturik edo enkartaturik dauden eta beren burua defendatzen duten edo defentsariari laguntzen dioten abokatuek toga erabiliko dute eta abokatuentzat jarritako lekua okupatuko dute.

**39. artikulua**

1. Auzitegietan, publikoarengandik bereizitako leku bat apailatuko da, diharduten abokatuei jarritakoaren kondizio beretan, hartan jar daitezen toga jantzirik duten eta epaiketa eta ikustaldi publikoetan presente egon nahi duten gainerako abokatuak.

2. Epaitegi eta auzitegien egoitzetan, ahal dela, gela duinak eta nahikoak izango dira abokatuek soilik erabiltzeko beren eginkizunetan dihardutela.

**40. artikulua**

Abokatuek arrazoizko denbora batez itxarongo dute esku hartu behar duten jarduketetarako organo judizialek aurreikusitako ordutik aurrera; denbora hori iraganik, kexa jarri ahal izango dute organo beraren aurrean, eta atzerapenaren berri eman dagokion elkargoko gobernu-batzarraren aurrean, egoki diren neurriak har ditzan.

**41. artikulua**

Diharduen abokatuak irizten badio bere eginbehar profesionalak betetzeko behar duen independentzia eta askatasuna eragozten dizkiola agintari, auzitegi edo epaitegiak, edo ez zaiola gordetzen beraren lanbideari zor zaion begiramena, hala adierazi ahal izango du epaitegi edo auzitegiaren beraren aurrean, idazkariak fede emanik, eta gobernu-batzarrari jakinarazi. Batzar horrek, kexak funtsa baduela baderitzo, behar diren neurriak hartuko ditu askatasun, independentzia eta ospe profesionala babesteko.

## IV. KAPITULUA

## Alderdiei buruz

**42. artikulua**

1. Abokatuaren betebeharrak dira, defendatzen duen alderdiarekiko, kontratu-harremanetatik eratortzen diren betebeharrez gain, arretarik eta prestasunik zorrotzenarekin eta sekretu profesionala gordez betetzea gomendatu zaion defentsa-lana.

2. El abogado realizará diligentemente las actividades profesionales que le imponga la defensa del asunto encomendado, ateniéndose a las exigencias técnicas, deontológicas y éticas adecuadas a la tutela jurídica de dicho asunto y pudiendo auxiliarse de sus colaboradores y otros compañeros, quienes actuarán bajo su responsabilidad.

3. En todo caso, el abogado deberá identificarse ante la persona a la que asesore o defienda, incluso cuando lo hiciere por cuenta de un tercero, a fin de asumir las responsabilidades civiles, penales y deontológicas que, en su caso, correspondan.

**Artículo 43**

Son obligaciones del abogado para con la parte contraria el trato considerado y cortés, así como la abstención u omisión de cualquier acto que determine una lesión injusta para la misma.

## CAPÍTULO V

### En relación a honorarios profesionales

**Artículo 44**

1. El abogado tiene derecho a una compensación económica adecuada por los servicios prestados, así como al reintegro de los gastos que se le hayan causado. La cuantía de los honorarios será libremente convenida entre el cliente y el abogado, con respeto a las normas deontológicas y sobre competencia desleal. A falta de pacto expreso en contrario, para la fijación de los honorarios se podrán tener en cuenta, como referencia, los baremos orientadores del Colegio en cuyo ámbito actúe, aplicados conforme a las reglas, usos y costumbres del mismo, normas que, en todo caso, tendrán carácter supletorio de lo convenido y que se aplicarán en los casos de condena en costas a la parte contraria.

2. Dicha compensación económica podrá asumir la forma de retribución fija, periódica o por horas. Respecto a las costas recobradas de terceros se estará a lo que libremente acuerden las partes, que a falta de pacto expreso habrán de ser satisfechas efectivamente al abogado.

3. Se prohíbe en todo caso la *cuota litis* en sentido estricto, entendiéndose por tal el acuerdo entre el abogado y su cliente, previo a la terminación del asunto, en virtud del cual éste se compromete a pagarle únicamente un porcen-

2. Abokatuak arretaz egingo ditu auziaren defentsak eskatzen dizkion jarduera profesionalak, auziaren babes juridikorako egokiak diren eskakizun tekniko, deontologiko eta etikoekin bat etorriz, eta laguntzaileak eta beste kide batzuk izan ditzake, beraren ardurapean dihardutela.

3. Betiere, abokatuak identifikatu egin beharko du aholkatzen edo defendatzen duen pertsonaren aurrean, baita hirugarren baten kontura dihardueneam ere, hartara bere gain hartzeko erantzukizun zibil, penal eta deontologikoak, hala badagokio.

**43. artikulua**

Abokatuaren betebeharrak dira, kontrako alderdiarekiko, begirunez eta adeitasunez tratatzea eta ez egitea harentzat kalte bidegabea dakarren egintzarik.

## V. KAPITULUA

## Ordainsari profesionalei buruz

**44. artikulua**

1. Abokatuak eskubidea du konpentsazio ekonomiko egokia jasotzeko egiten dituen zerbitzuengatik, eta sortu zaizkion gastuei dagokiena atzera jasotzekoa. Ordainsarien zenbatekoa libreki adostuko dute bezeroaren eta abokatuaren artean, arau deontologikoak eta lehia desleialari buruzkoak zainduz. Espresuki kontrakoa hitzartzen ez badute, ordainsariak zehazteko erreferentzia gisa kontuan hartu ahal izango dira jardun behar den eremuari dagokion elkargoaren baremo orientagarriak, eta eremu horretako arau, aztura eta ohituren arabera aplikatu; arauok, betiere, hitzartutakoaren osagarri izango dira, eta kontrako alderdia kostuak ordaintzera kondenatzen denean aplikatuko dira.

2. Konpentsazio ekonomiko horrek lansari finko, aldizkako edo ordukakoaren forma har dezake. Hirugarren batzuengandik berreskuratutako kostuei dagokienez, alderdiek libreki hitzartzen dutenak aginduko du; espresuki kontrakoa hitzartzen ez bada, abokatuari ordaindu beharko zaizkio.

3. Debeku da, betiere, *cuota litis* deritzona zentzu hertsian, halakotzat harturik abokatuaren eta bezeroaren arteko hitzarmen bat, auzia amaitu baino lehenagokoa, zeinaren bitartez bezeroak konpromisoa hartzen baitu

taje del resultado del asunto, independientemente de que consista en una suma de dinero o cualquier otro beneficio, bien o valor que consiga el cliente por ese asunto.

4. La Junta de Gobierno del Colegio podrá adoptar medidas disciplinarias contra los letrados que habitual y temerariamente impugnen las minutas de sus compañeros, así como contra los letrados cuyos honorarios sean declarados reiteradamente excesivos o indebidos.

## CAPÍTULO VI

### En relación con la asistencia jurídica gratuita

**Artículo 45**

1. Corresponde a los abogados el asesoramiento jurídico y defensa de oficio de las personas que tengan derecho a la asistencia jurídica gratuita, conforme a la legislación vigente.

2. Asimismo, corresponde a los abogados la asistencia y defensa de quienes soliciten abogado de oficio o no designen abogado en la jurisdicción penal, sin perjuicio del abono de honorarios por el cliente si no le fuere reconocido el derecho a la asistencia jurídica gratuita. La invocación del derecho de autodefensa no impedirá la asistencia de abogado para atender los asesoramientos que al respecto se le soliciten y asumir la defensa si se le pidiere.

3. Igualmente corresponde a los abogados la asistencia a los detenidos y presos, en los términos que exprese la legislación vigente.

**Artículo 46**

1. Los abogados desempeñarán las funciones a que se refiere el artículo precedente con la libertad e independencia profesionales que les son propias y conforme a las normas éticas y deontológicas que rigen la profesión.

2. El desarrollo de dichas funciones será organizado por el Consejo General, los Consejos de Comunidades Autónomas, en su caso, y los Colegios de Abogados, procediendo a la designación del abogado que haya de asumir cada asunto, al control de su desempeño, a la exigencia de las responsabilidades disciplinarias a que hubiere lugar y al establecimiento de las normas y requisitos a que haya de atenerse la prestación de los servicios correspondientes, todo ello conforme a la legislación vigente.

auziaren emaitzaren ehuneko bat bakarrik ordaintzeko, izan diru-kopuru bat edo izan bezeroak auziaren bidez lortutako beste edozein etekin, ondasun edo balio.

4. Elkargoko gobernu-batzarrak diziplina-neurriak hartu ahal izango ditu beren lankideen minutak modu ohiko eta arduragabean aurkaratzen dituzten abokatuen kontra, eta orobat ordainsariak behin eta berriz gehiegizko edo desegokitzat joak dituzten abokatuen aurka.

## VI. KAPITULUA

## Doako laguntza juridikoari buruz

### 45. artikulua

1. Abokatuei dagokie ofizioz aholku juridikoa ematea eta defentsa egitea doako laguntza juridikorako eskubidea duten pertsonei, indarrean den legeriaren arabera.

2. Era berean, abokatuei dagokie laguntza ematea eta defentsa egitea jurisdikzio penalean ofiziozko abokatua izendatzen dutenei edo abokaturik izendatzen ez dutenei; bezeroak ordainsariak eman beharko ditu, nolanahi ere, ez bazaio aitortzen doako laguntza juridikorako eskubidea. Autodefentsarako eskubidea alegatzeak ez du eragotziko abokatuaren laguntza izatea horri buruz eskatzen zaizkion aholkularitzetarako, eta defentsa bere gain hartzea hala eskatzen bazaio.

3. Orobat dagokie abokatuei atxilotutakoei eta presoei laguntza ematea, indarrean den legeriak adierazten duen moduan.

### 46. artikulua

1. Abokatuek, aurreko artikuluak aipatzen dituen eginkizunak betetzean, berezkoak dituzten askatasun eta independentzia profesionalez jardungo dute, eta lanbidean agintzen duten arau etiko eta deontologikoen arabera.

2. Eginkizun horiek betetzeari dagokiona antolatzeko ardura dute Kontseilu Nagusiak, autonomia-erkidegoetako kontseiluek, hala badagokio, eta abokatu-elkargoek: gai bakoitza hartu behar duen abokatua izendatuko dute; haren jarduna kontrolatu; diziplina-erantzukizunak eskatu, behar izanez gero; eta dagozkion zerbitzuak egitean kontuan hartu beharreko arau eta betekizunak ezarri; hori guztia, indarrean den legeriaren arabera.

3. La Administración pública abonará la remuneración de los servicios que se presten en cumplimiento de lo establecido en este capítulo y podrá efectuar el seguimiento y control periódico del funcionamiento del servicio y de la aplicación de los fondos públicos a él destinados, en la forma legalmente establecida.

# TÍTULO IV

# DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO DE LOS COLEGIOS Y DEL RÉGIMEN ECONÓMICO COLEGIAL

## CAPÍTULO I

## De los órganos de los Colegios

### Artículo 47

1. El Gobierno de los Colegios estará presidido por los principios de democracia y autonomía.

2. Cada Colegio de Abogados será regido por el Decano, la Junta de Gobierno y la Junta General. Los Estatutos particulares de los Colegios cuyo número de colegiados lo aconseje podrán disponer, además, de una Asamblea Colegial de carácter permanente.

## CAPÍTULO II

## De la Junta de Gobierno

### Artículo 48

1. Los Estatutos particulares de cada Colegio establecerán las normas de composición y funcionamiento de la Junta de Gobierno.

2. En todo caso, corresponderá al Decano la representación legal del Colegio en todas sus relaciones, incluidas las que mantenga con los poderes públicos, entidades, corporaciones y personalidades de cualquier orden; las funciones de consejo, vigilancia y corrección que los Estatutos reserven a su autoridad; la presidencia de todos los órganos colegiales, así como a cuantas comisiones y comités especiales asista, dirigiendo los debates y votaciones, con

3. Administrazio publikoak kapitulu honetan ezarritakoa betez ordainduko du zerbitzuen ordainsaria, eta jarraipena egin eta aldizka kontrolatu ahal izango du, legez ezarritako moduan, zerbitzuak nola funtzionatzen duen eta hartara bideratutako funts publikoak nola bideratzen diren.

# IV. TITULUA

# ELKARGOETAKO GOBERNU-ORGANOAK ETA ELKARGOEN ARAUBIDE EKONOMIKOA

## I. KAPITULUA

## Elkargoetako organoak

### 47. artikulua

1. Demokrazia eta autonomia printzipioek gidatuko dute elkargoen gobernua.

2. Abokatu-elkargo bakoitza dekanoak, gobernu-batzarrak eta batzar nagusiak eraenduko dute. Elkargokide-kopuruagatik hala komeni bada, elkargoen estatutu partikularrek xeda dezakete aurreko horietaz gainera elkargo-batzar iraunkor bat ere izatea.

## II. KAPITULUA

## Gobernu-batzarra

### 48. artikulua

1. Elkargo bakoitzaren estatutu partikularrek ezarriko dituzte gobernu-batzar bakoitza osatzeko eta funtzionatzeko arauak.

2. Dekanoari dagokio beti elkargoaren ordezkari izatea haren harreman guztietan, barne harturik botere publikoekin, erakundeekin, korporazioekin eta era guztietako pertsonalitateekin dituenak; estatutuek haren autoritaterako gordetzen dituzten aholku-, zaintza- eta zuzenketa-eginkizunak; buru izatea elkargoaren organo guztietan, eta orobat parte hartzen duen batzorde eta komite berezietan, eztabaidak eta bozketak gidatuz eta kalitate-botoa izanez berdin-

voto de calidad en caso de empate; la expedición de las órdenes de pago y libramientos para atender los gastos e inversiones colegiales, y la propuesta de los abogados que deban formar parte de Tribunales de oposiciones o concursos, a excepción de aquellas propuestas que por disposición legal corresponda realizar al Consejo General de la Abogacía.

**Artículo 49**

1. El Decano y los demás cargos de la Junta de Gobierno serán elegidos en votación directa y secreta, en la que podrán participar como electores todos los colegiados incorporados con más de tres meses de antelación a la fecha de convocatoria de las elecciones y como elegibles, para el cargo de Decano los colegiados ejercientes y para los demás cargos los electores residentes en el ámbito del Colegio de que se trate, siempre que no estén incursos en ninguna de las siguientes situaciones:

a) Estar condenados por sentencia firme que lleve aparejada la inhabilitación o suspensión para cargos públicos, en tanto éstas subsistan.
b) Haber sido disciplinariamente sancionados en cualquier Colegio de Abogados, mientras no hayan sido rehabilitados.
c) Ser miembros de órganos rectores de otro Colegio profesional.

2. El período del mandato de los miembros de la Junta de Gobierno se fijará en los Estatutos de cada Colegio, aunque sin superar los cinco años, pero permitiéndose la reelección.

3. Ningún colegiado podrá presentarse como candidato a más de un cargo de los que hayan de ser elegidos en la misma convocatoria.

4. En las elecciones el voto de los abogados ejercientes tendrá doble valor que el voto de los demás colegiados, proclamándose electos para cada cargo a los candidatos que obtengan la mayoría. En caso de empate se entenderá elegido el que más votos hubiere obtenido entre los ejercientes; de persistir éste, el de mayor tiempo de ejercicio en el propio Colegio; y si aún se mantuviera el empate, el de mayor edad.

5. Los recursos que se interpongan en el proceso electoral o contra su resultado, ante la Junta de Gobierno del Colegio o ante el Consejo General de la Abogacía Española, serán admitidos en un solo efecto y no suspenderán la votación, proclamación y posesión de los elegidos, salvo cuando así se acuerde por causas excepcionales mediante resolución expresa y motivada.

ketaren kasuan; ordainketa-aginduak eta libramenduak bidaltzea elkargoaren gastu eta inbertsioei erantzuteko; eta proposatzea zer abokatuk hartuko duten parte oposizio eta lehiaketetako epaimahaietan, non eta proposamena egitea ez dagokion lege-xedapenez Abokatutzaren Kontseilu Nagusiari.

**49. artikulua**

1. Dekanoa eta gobernu-batzarreko gainerako karguak zuzeneko eta sekretupeko bozketan hautatuko dira. Bozketan, hautesle izan daitezke hauteskunde-deiaren aurreko hiru hilabeteak baino lehen elkargokide direnak, eta hautagarri, berriz, dekano kargurako, diharduten elkargokideak, eta gainerako karguetarako, dena delako elkargoaren eremuan bizi diren hautesleak, ez badaude egoera hauetakoren batean:

a) Epai irmoz kondenatuta, epai horrek berekin dakarrelarik kargu publikoetarako desgaikuntza edo geldiera, egoera horrek dirauen bitartean.
b) Abokatu-elkargoren baten diziplina-zehapenaren pean, birgaitzen ez diren bitartean.
c) Beste elkargo profesional bateko organo gidari batean sartuta.

2. Gobernu-batzarreko kideen kargualdia zenbatekoa den, elkargo bakoitzaren estatutuetan ezarriko da, betiere bost urte baino gehiago izan gabe baina berrautatua izateko aukerarekin.

3. Ezein elkargokide ezin aurkeztuko da deialdi bakoitzean hautatu behar diren karguetatik bat baino gehiagotarako hautagai.

4. Hauteskundeetan, diharduten abokatuen botoak gainerako elkargokideenak halako biren balioa izango du, eta gehiengoa lortzen duten hautagaiak izendatuko dira kargu bakoitzerako. Berdinketa gertatzen bada, dihardutenen artean boto gehien daukana joko da hautatutzat; berdinketak bere horretan badirau, elkargoan denbora gehien jardundakoa; eta oraindik ere berdinketa bada, adin handienekoa.

5. Hauteskunde-prozesuan edo emaitzaren kontra jartzen diren errekurtsoak elkargoko gobernu-batzarraren edo Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren aurrean jarriko dira; efektu bakarrean onartuko dira, eta ez dute geldieran utziko bozketa, hautatuen izendapena eta kargu hartzea, non eta ez den hala erabakitzen, salbuespenezko arrazoiengatik, ebazpen espresu eta arrazoitu baten bidez.

6. El procedimiento electoral será establecido por los Estatutos particulares de cada Colegio, que podrán autorizar y regular el voto por correo, con garantías para su autenticidad y secreto.

**Artículo 50**

1. Los candidatos proclamados electos tomarán posesión conforme a lo establecido en los Estatutos de cada Colegio, previo juramento o promesa de cumplir lealmente el cargo respectivo y guardar secreto de las deliberaciones de la Junta de Gobierno, en cuyo momento cesarán los sustituidos.

2. En el plazo de cinco días desde la constitución de los órganos de gobierno, deberá comunicarse ésta al Consejo General y al Consejo de Colegios de la Comunidad Autónoma correspondiente, en su caso, con indicación de su composición y del cumplimiento de los requisitos legales.

3. El Decano, bajo su responsabilidad, impedirá la toma de posesión o decretará el cese si ya se hubiere producido a aquellos candidatos elegidos de los que tenga conocimiento que se hallaban en cualquiera de las situaciones expresadas en el artículo 49.1_de este Estatuto General.

**Artículo 51**

Los miembros de la Junta de Gobierno de los Colegios de Abogados cesarán por las causas siguientes:

a) Fallecimiento.
b) Renuncia del interesado.
c) Falta de concurrencia o pérdida de los requisitos estatutarios para desempeñar el cargo.
d) Expiración del término o plazo para el que fueron elegidos o designados.
e) Falta de asistencia injustificada a tres sesiones consecutivas de la Junta de Gobierno o a cinco alternas en el término de un año, previo acuerdo de la propia Junta, o a alguna de las previstas en el artículo 88.4.
f) Aprobación de moción de censura, según lo regulado en el siguiente capítulo.

**Artículo 52**

1. Cuando por cualquier causa queden vacantes la totalidad de los cargos de la Junta de Gobierno de un Colegio, el Consejo Autonómico o, en su caso, el Consejo General designará una Junta Provisional de entre sus miembros más

6. Elkargo bakoitzaren estatutu partikularrek ezarriko dute hauteskunde-prozedura, eta postazko botoa onartu eta arautu ahal izango dute, benetakotasuna eta sekretua bermatuz.

**50. artikulua**

1. Hautatu izendatutako hautagaiek elkargo bakoitzaren estatutuetan ezarritakoaren arabera hartuko dute kargua, aurrez zin edo promes eginez leialki beteko dutela dagokien kargua eta sekretuan gordeko dituztela gobernu-batzarraren eztabaidak, ordeztuak une horretan kargugabetuko baitira.

2. Gobernu-organoak eratu eta bost eguneko epean, Kontseilu Nagusiari eta dagokion autonomia-erkidegoko elkargo-kontseiluari jakinarazi beharko zaio, osaera zein den adieraziz eta legezko betekizunak betetzen direla bermatuz.

3. Dekanoak, bere erantzukizunaren pean, eragotzi egingo du kargu-hartzea, edo, dagoeneko izan bada, kargugabetzea erabakiko, jakiten badu hautaturen baten kasuan Estatutu Orokor honen 49.1 artikuluan adierazitako egoeretakoren bat gertatu dela.

**51. artikulua**

Abokatu-elkargoen gobernu-batzarretako kideak arrazoi hauengatik kargugabetuko dira:

a) Heriotzagatik.
b) Interesdunak uko egiteagatik.
c) Estatutuetan karguan aritzeko ezarritako betekizunak ez betetzeagatik edo galtzeagatik.
d) Hautatuak edo izendatuak izan ziren aldia edo epea amaitzeagatik.
e) Justifikaziorik gabe huts egiteagatik gobernu-batzarraren hiru saiotara jarraian edo bostetara urtebeteko epean, batzarrak berak aurrez erabakita, edo 88.4 artikuluan aurreikusitako saioren batera.
f) Zentsura-mozioa onesteagatik, hurrengo kapituluan araututakoaren arabera.

**52. artikulua**

1. Edozein arrazoirengatik hutsik gelditzen badira elkargo bateko gobernu-batzarraren kargu guztiak, erkidegoko kontseiluak edo hala badagokio Kontseilu Nagusiak behin-behineko batzar bat izendatuko du antzinatasun handie-

antiguos. La Junta Provisional convocará, en el plazo de treinta días naturales, elecciones para la provisión de los cargos vacantes por el resto del mandato que quedase, elecciones que deberán celebrarse dentro de los treinta días naturales siguientes, contados a partir de la convocatoria.

2. De la misma forma se completará provisionalmente la Junta de Gobierno de un Colegio cuando se produjera la vacante de la mitad o más de los cargos, procediéndose de igual modo a la convocatoria de elecciones para su provisión definitiva.

**Artículo 53**

Son atribuciones de la Junta de Gobierno:

a) Someter a referéndum asuntos concretos de interés colegial, por sufragio secreto y en la forma que la propia Junta establezca.

b) Resolver sobre la admisión de los Licenciados en Derecho que soliciten incorporarse al Colegio, pudiendo ejercer esta facultad el Decano, en casos de urgencia, que serán sometidos a la ratificación de la Junta de Gobierno.

c) Velar por que los colegiados observen buena conducta con relación a los Tribunales, a sus compañeros y a sus clientes, y que en el desempeño de su función desplieguen la necesaria diligencia y competencia profesional.

d) Ejercitar las acciones y actuaciones oportunas para impedir y perseguir el intrusismo, así como el ejercicio de la profesión a quienes, colegiados o no, la ejerciesen en forma y bajo condiciones contrarias a las legalmente establecidas, sin excluir a las personas, naturales o jurídicas, que faciliten el ejercicio profesional irregular.

e) Regular, en los términos legalmente establecidos, el funcionamiento y la designación para prestar los servicios de asistencia jurídica gratuita.

f) Determinar las cuotas de incorporación y las ordinarias que deban satisfacer los colegiados para el sostenimiento de las cargas y servicios colegiales.

g) Proponer a la Junta General la imposición de cuotas extraordinarias a sus colegiados.

h) Recaudar el importe de las cuotas y de las pólizas establecidas para el sostenimiento de las cargas del Colegio, del Consejo de Colegios de la Comunidad Autónoma, en su caso, del Consejo General de la Abogacía y de la Mutualidad General de la Abogacía, Mutualidad de Previsión Social a prima fija, así como de los demás recursos económicos de los Colegios previstos en este Estatuto General.

neko kideen artetik. Behin-behineko batzarrak, hogeita hamar egun naturalen epean, hauteskunde-deia egingo du hutsik diren karguak geratzen den kargualdirako hornitzeko; hurrengo hogeita hamar egun naturalen barruan egin beharko dira hauteskundeak, deialditik aurrera kontaturik.

2. Era berean osatuko da behin-behinekoz elkargo bateko gobernu-batzarra karguen erdiak baino gehiago hutsik geratzen direnean; modu berean egingo da hauteskunde-deia haiek behin betiko hornitzeko.

**53. artikulua**

Gobernu-batzarraren eskudantziak dira:

a) Erreferendumera ateratzea elkargoaren intereseko gai zehatz batzuk, sufragio sekretuz eta batzarrak berak ezartzen duen moduan.

b) Elkargokide egin nahi duten zuzenbide-lizentziadunak onartu edo ez erabakitzea; presazko kasuetan, dekanoak baliatu ahal izango du ahalmen hori, eta gobernu-batzarrak berresteko jarri.

c) Zaintzea elkargokideek jokabide egokia izan dezaten auzitegiekin, lankideekin eta bezeroekin dituzten harremanetan, eta behar den arreta eta gaitasun profesionala erakuts dezaten beren eginkizunak betetzean.

d) Behar diren ekintzak eta jarduketak egitea intrusismoa eragozteko eta hari jazartzeko, eta orobat lanbidean jardutea elkargokide izanda edo izan gabe legez ezarritako baldintzek agintzen dutenaz bestera dihardutenei, alde batera utzi gabe jarduera profesional irregularra izateko bidea errazten duten pertsona natural edo juridikoak.

e) Legez ezarritako moduan erregulatzea doako laguntza juridikorako zerbitzuen funtzionamendua eta haietarako izendapenak.

f) Elkargoan sartzeko kuotak zehaztea, eta elkargoaren kargei eta zerbitzuei eusteko elkargokideek ordaindu beharreko kuota arruntak zehaztea.

g) Elkargokideei ezohiko kuotak ezartzeko proposamena egitea batzar nagusiari.

h) Elkargoaren, autonomia-erkidegoko elkargo-kontseiluaren, Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren eta Abokatutzako Mutualitate Orokorraren —gizarte-aurreikuspeneko prima finkoko mutualitatea— gastuei eusteko ezarritako kuotak eta polizak biltzea, eta orobat Estatutu Orokor honetan elkargoentzat aurreikusitako gainerako baliabide ekonomikoak.

i) Proponer a la Junta General el establecimiento de baremos orientadores de honorarios profesionales y emitir informes sobre honorarios aplicables cuando los Tribunales pidan su dictamen con sujeción a lo dispuesto en las Leyes o cuando lo soliciten los colegiados minutantes.

j) Convocar elecciones para proveer los cargos de la Junta de Gobierno, disponiendo lo necesario para su elección, conforme a las normas legales y estatutarias.

k) Convocar Juntas Generales ordinarias y extraordinarias, señalando el orden del día para cada una.

l) Ejercer las facultades disciplinarias respecto a los colegiados.

m) Proponer a la aprobación de la Junta General los reglamentos de orden interior que estime convenientes.

n) Establecer, crear o aprobar las delegaciones, agrupaciones, comisiones o secciones de colegiados que puedan interesar a los fines de la corporación, regulando su funcionamiento y fijando las facultades que, en su caso, le deleguen.

ñ) Velar por que en el ejercicio profesional se observen las condiciones de dignidad y prestigio que corresponden al abogado, así como propiciar la armonía y colaboración entre los colegiados, impidiendo la competencia desleal, conforme a la legalidad vigente.

o) Informar a los colegiados con prontitud de cuantas cuestiones conozca que puedan afectarles, ya sean de índole corporativa, colegial, profesional o cultural.

p) Defender a los colegiados en el desempeño de las funciones de la profesión, o con ocasión de las mismas, cuando lo estime procedente y justo.

q) Promover cerca del Gobierno y de las autoridades cuanto se considere beneficioso para el interés común y para la recta y pronta Administración de Justicia.

r) Ejercitar los derechos y acciones que correspondan al Colegio y, en particular, contra quienes entorpezcan el buen funcionamiento de la Administración de Justicia o la libertad e independencia del ejercicio profesional.

s) Recaudar, distribuir y administrar los fondos del Colegio; redactar los presupuestos, rendir las cuentas anuales, y proponer a la Junta General la inversión o disposición del patrimonio colegial, si se tratare de inmuebles.

i) Batzar nagusiari proposatzea ordainsari profesionaletarako baremo orientagarriak ezar ditzala, eta aplikatzekoak diren baremoei buruzko txostenak ematea auzitegiek irizpena eskatzen dutenean legeek ezarritakoaren arabera edo minutak igortzen dituzten elkargokideek hala eskatzen dutenean.

j) Hauteskundeetara deitzea gobernu-batzarreko karguak betetzeko, behar dena erabakiz haiek hautatzeko, legezko eta estatutuzko arauekin bat etorriz.

k) Ohiko eta ezohiko batzar nagusietarako deiak egitea, bakoitzerako gai-zerrenda zehaztuz.

l) Zehapen-ahalmenak egikaritzea elkargokideei dagokienez.

m) Batzar nagusiak onesteko proposatzea egoki deritzon barne-mailako erregelamenduak.

n) Korporazioaren xedeetarako interesgarri izan litezkeen delegazio, elkartze, komisio edo atalak ezartzea, sortzea edo onestea, haien funtzionamendua arautuz eta eskuordetzan zer ahalmen ematen zaion zehaztuz, ematen bazaio.

ñ) Zaintzea jarduera profesionalean abokatuari dagozkion duintasuna eta ospea babestu daitezela, eta, orobat, elkargokideen arteko harmonia eta lankidetza sustatzea, lehia desleiala eragotziz, indarrean den legeriaren arabera.

o) Elkargokideak bizkor informatzea jakiten dituen eta eragin diezaiekeen edozer konturi buruz, izan korporatiboa, elkargoari dagokiona, lanbidekoa edo kulturala.

p) Elkargokideak defendatzea lanbideko eginkizunak betetzean, edo eginkizun horiek direla bitarte, egoki eta bidezko deritzonean.

q) Gobernutik eta agintariengandik gertu sustatzea interes orokorraren eta justizia zuzen eta azkar egitearen onerako dela deritzoten guztia.

r) Elkargoari dagozkion eskubideak eta akzioak baliatzea; bereziki, Justizia Administrazioaren funtzionamendu egokia trabatzen dutenen kontra edo jarduera profesionalaren askatasuna edo independentzia trabatzen dutenen kontra.

s) Elkargoaren funtsak biltzea, banatzea eta administratzea; aurrekontuak prestatzea; urteko kontuak ematea; eta batzar nagusiari proposatzea elkargoaren ondarea inbertitzea edo eskuratzea, higiezinak badira.

t) Emitir consultas y dictámenes, administrar arbitrajes y dictar laudos arbitrales, así como crear y mantener Tribunales de Arbitraje.

u) Proceder a la contratación de los empleados necesarios para la buena marcha de la corporación.

v) Dirigir, coordinar, programar y controlar la actividad de los departamentos y servicios colegiales.

w) Desempeñar todas las funciones y ejercer todas las facultades expresadas respecto del Consejo General de la Abogacía bajo los párrafos x) e y) del artículo 68_del presente Estatuto, salvo adquirir, hipotecar y enajenar bienes inmuebles, que requerirá acuerdo de la Junta General o Asamblea Colegial, en su caso.

x) Cuantas otras establecen el presente Estatuto General o los particulares de cada Colegio.

**Artículo 54**

1. Corresponde a la Junta de Gobierno aprobar la constitución, suspensión o disolución de las agrupaciones de abogados jóvenes, o cualesquiera otras que puedan constituirse en el seno del Colegio, así como sus Estatutos y las modificaciones de los mismos.

2. Las agrupaciones de abogados que estén constituidas o se constituyan en cada Colegio actuarán subordinadas a la Junta de Gobierno.

3. Las actuaciones y comunicaciones de las comisiones, secciones y agrupaciones existentes en el seno del Colegio habrán de ser identificadas como de tal procedencia, sin atribuirse a la corporación.

## CAPÍTULO III

## De la Junta General y la Asamblea Colegial

**Artículo 55**

1. Los Colegios de Abogados celebrarán cada año dos Juntas Generales ordinarias, una en el primer trimestre y otra en el último, salvo que sus Estatutos particulares establezcan la existencia de una Asamblea Colegial permanente, caso en el que solamente celebrarán una Junta General ordinaria en el primer semestre de cada año.

t) Kontsultak eta irizpenak ematea, arbitrajeak administratzea eta arbitraje-laudoak ematea, eta arbitraje-auzitegiak sortzea eta mantentzea.

u) Korporazioaren jardun egokirako behar diren enplegatuak kontratatzea.

v) Elkargoko departamentu eta zerbitzuen jarduera zuzentzea, koordinatzea, programatzea eta kontrolatzea.

w) Estatutu honen 68. artikuluko x) eta y) paragrafoetan Abokatutzako Kontseilu Nagusiari buruz adierazten dituen eginkizun guztiak bete eta ahalmen guztiak baliatzea, salbu ondasun higiezinak eskuratu, hipotekatu eta besterentzea, horrek batzar nagusiaren edo elkargo-batzarraren erabakia eskatzen baitu.

x) Estatutu Orokor honek edo elkargo bakoitzaren estatutuek ezarritako beste edozein.

### 54. artikulua

1. Gobernu-batzarrari dagokio onespena ematea abokatu gazteen elkarteak eratzeko, geldieran uzteko edo desegiteko, edo elkargoaren barruan sor daitekeen beste edozein, eta halaber haien estatutuak eta haien aldaketak.

2. Elkargo bakoitzean eratuta dauden edo eratzen diren abokatu-elkarteek gobernu-batzarraren mende jardungo dute.

3. Elkargoaren barruko batzorde, atal eta elkarteen jarduerak eta komunikazioak bakoitzaren jatorriarekin identifikatu beharko dira, eta ez korporazioari egotzi.

## III. KAPITULUA

## Batzar nagusia eta elkargo-batzarra

### 55. artikulua

1. Abokatu-elkargoek, urtero, ohiko batzar nagusi bat egingo dute, bat lehen hiruhilekoan eta bestea azkenekoan, non eta beren estatutu partikularrek ez duten elkargo-batzar iraunkor bat ezartzen; kasu horretan, ohiko batzar nagusi bat bakarrik egingo dute, urteko lehen seihilekoan.

2. Además, se podrán celebrar cuantas Juntas Generales extraordinarias sean debidamente convocadas, a iniciativa del Decano, de la Junta de Gobierno o del número de colegiados que al efecto se establezca.

3. Los Estatutos particulares de cada Colegio establecerán las normas de convocatoria y celebración de las Juntas Generales.

**Artículo 56**

1. Todos los colegiados incorporados con anterioridad a la fecha de la convocatoria de la Junta General podrán asistir con voz y voto a las Juntas Generales ordinarias y extraordinarias que se celebren, pero el voto de los colegiados ejercientes computará con doble valor que el de los demás colegiados, salvo que los Estatutos particulares los equiparen.

2. Los Estatutos particulares de cada Colegio podrán permitir la delegación del voto en otro colegiado, salvo para elecciones y votaciones de censura y siempre con un máximo de tres delegaciones por votante.

3. Los acuerdos de las Juntas Generales se adoptarán por mayoría simple y, una vez adoptados, serán obligatorios para todos los colegiados, sin perjuicio del régimen de recursos establecido en este Estatuto General.

**Artículo 57**

1. La Junta General ordinaria a celebrar en el primer trimestre de cada año tendrá el siguiente orden del día:

1.º Reseña que hará el Decano de los acontecimientos más importantes que durante el año anterior hayan tenido lugar con relación al Colegio.
2.º Examen y votación de la cuenta general de gastos e ingresos del ejercicio anterior.
3.º Lectura, discusión y votación de los asuntos que se consignen en la convocatoria.
4.º Proposiciones.
5.º Ruegos y preguntas.

2. Quince días antes de la Junta, los colegiados podrán presentar las proposiciones que deseen someter a la deliberación y acuerdo de la Junta General, y que serán tratadas en el orden del día dentro de la Sección denominada pro-

2. Gainera, egoki deituriko ezohiko batzar nagusi guztiak egin ahal izango dira, dekanoaren, gobernu-batzarraren edo hartarako ezartzen den elkargokide-kopuruaren ekimenez.

3. Elkargo bakoitzaren estatutu partikularrek ezarriko dituzte batzar nagusietara deitzeko eta haiek egiteko arauak.

**56. artikulua**

1. Batzar nagusirako deialdiaren eguna baino lehen elkargokide diren guztiek har dezakete parte ohiko eta ezohiko batzar nagusietan, ahotsa eta botoa dutela, baina diharduten elkargokideen botoak gainerako elkargokideenak halako biren balioa izango du, non eta estatutu partikularrek ez dituzten berdintzen.

2. Elkargo bakoitzaren estatutu partikularrek aukera eman dezakete botoa beste elkargokide bati eskuordetzeko, salbu eta hauteskundeetarako eta zentsura-bozketetarako, eta betiere boto-emaile bakoitzeko hiru eskuordetzeren muga izanik.

3. Batzar nagusien erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, eta, hartutakoan, nahitaez bete beharrekoak izango dira elkargokide guztientzat, hargatik eragotzi gabe Estatutu Orokor honetan ezarritako errekurtso-araubidea.

**57. artikulua**

1. Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan egin beharreko ohiko batzar nagusiak gai-zerrenda hau izango du:

1. Aurreko urtean elkargoaren inguruan izan diren gertaerarik garrantzitsuenen aipamena, dekanoak egina.
2. Aurreko ekitaldiko gastuen eta diru-sarreren kontu orokorra aztertzea eta bozkatzea.
3. Deialdian adierazten diren gaiak irakurri, eztabaidatu eta bozkatzea.
4. Proposamenak.
5. Galde-eskariak.

2. Batzarra baino hamabost egun lehenago, elkargokideek nahi dituzten proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte batzar nagusian eztabaidatu eta bozkatzeko; gai-zerrendaren barruan, proposamenak deritzon atalean aztertuko

posiciones. Dichas proposiciones deberán aparecer suscritas por el número de colegiados que determine el Estatuto de cada Colegio, con un mínimo de diez colegiados y un máximo del 5 por 100 del total del censo. Al darse lectura a estas proposiciones, la Junta General acordará si procede o no abrir discusión sobre ellas.

**Artículo 58**

La Junta General ordinaria a celebrar en el último trimestre de cada año tendrá el siguiente orden del día:

1.º Examen y votación del presupuesto formado por la Junta de Gobierno para el ejercicio siguiente.
2.º Lectura, discusión y votación de los asuntos que se consignen en la convocatoria.
3.º Ruegos y preguntas.

**Artículo 59**

1. Los Estatutos particulares de cada Colegio y sus modificaciones serán elaborados por el mismo, aprobando el proyecto su Junta General extraordinaria, que requerirá para su válida constitución a este fin la asistencia de la mitad más uno del censo colegial con derecho a voto.

2. Si no se alcanzare dicho quórum, la Junta de Gobierno convocará nueva Junta General en la que no se exigirá quórum especial alguno.

3. El proyecto de Estatuto o su modificación será sometido al Consejo General de la Abogacía Española para su aprobación.

**Artículo 60**

1. El voto de censura a la Junta de Gobierno o a alguno de sus miembros competerá siempre a la Junta General extraordinaria convocada a ese solo efecto.

2. La solicitud de esa convocatoria de Junta General extraordinaria requerirá la firma de un mínimo del 20 por 100 de los colegiados ejercientes, incorporados al menos con tres meses de antelación, y expresará con claridad las razones en que se funde. No obstante, en los Colegios con más de cinco mil ejercientes bastará el 15 por 100 y en los de más de diez mil ejercientes, bastará el 10 por 100.

dira. Proposamenak zenbait elkargokidek sinaturik aurkeztu behar dira; zenbat elkargokide behar diren, elkargo bakoitzaren estatutuak zehaztuko du, bi muga hauen barruan: hamar, gutxienez, eta erroldaren 100eko 5, gehienez. Proposamenak irakurtzean, batzar nagusiak erabakiko du haiei buruzko eztabaida egin edo ez.

**58. artikulua**

Urte bakoitzeko azken hiruhilekoan egin beharreko ohiko batzar nagusiak gai-zerrenda hau izango du:

1. Gobernu-batzarrak hurrengo ekitaldirako egin duen aurrekontua aztertu eta bozkatzea.
2. Deialdian adierazten diren gaiak irakurri, eztabaidatu eta bozkatzea.
3. Galde-eskariak.

**59. artikulua**

1. Elkargo bakoitzaren estatutu partikularrak eta haien aldaketak elkargoak berak prestatuko ditu, eta ezohiko batzar nagusiak onetsiko du proiektua. Batzar hori baliozko moduan eratua izateko, bertan izan behar dute boto-eskubidea duten elkargokideen erdiek eta bat gehiagok.

2. Quorum horretara iristen ez bada, gobernu-batzarrak berriz egingo du batzar nagusirako deia, eta orduan ez da quorum berezirik eskatuko.

3. Estatutu-proiektua edo haren aldaketa Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren mende jarriko da.

**60. artikulua**

1. Gobernu-batzarraren edo hartako kideren baten aurkako zentsura-botoa aurkeztea, beti, horretarako soilik deitutako ezohiko batzar nagusi baten esku egongo da.

2. Ezohiko batzar nagusira dei egiteko eskaerak diharduten elkargokideen 100eko 20ren sinadura eskatzen du, gutxienez; hiru hilabete lehenagotik elkargokide izan behar dute. Eta garbi adieraziko du zer arrazoitan funtsatzen den. Hala ere, elkargoan bost milatik gora badira dihardutenak, nahikoa izango dira 100eko 15, eta hamar mila baino gehiago badira dihardutenak, nahikoa izango dira 100eko 10.

3. La Junta General extraordinaria habrá de celebrarse dentro de los treinta días hábiles contados desde que se hubiera presentado la solicitud y no podrán tratarse en la misma más asuntos que los expresados en la convocatoria.

4. La válida constitución de dicha Junta General extraordinaria requerirá la concurrencia personal de la mitad más uno del censo colegial con derecho a voto y el voto habrá de ser expresado necesariamente de forma secreta, directa y personal.

**Artículo 61**

1. Los Estatutos particulares de los Colegios cuyo número de colegiados lo aconseje podrán establecer y regular una Asamblea Colegial, con carácter de permanencia, para que, con mayor continuidad, efectúe el control de la gestión económica del Colegio.

2. El número de miembros de la Asamblea Colegial será como mínimo tres veces y como máximo cinco veces el de los componentes de la Junta de Gobierno, siendo elegidos con el mismo régimen y mandato que la Junta de Gobierno, pero mediante sistema de listas abiertas y representación proporcional.

3. La Asamblea Colegial desempeñará las competencias atribuidas a la Junta General en materia económica y, especialmente, el examen y votación en el primer trimestre de cada año de la cuenta general de gastos e ingresos del ejercicio anterior y en el último trimestre del presupuesto para el ejercicio siguiente.

4. Los Colegios cuyos Estatutos particulares establezcan el sistema de Asamblea Colegial únicamente celebrarán una Junta General ordinaria en el primer semestre de cada año, con el siguiente orden del día:

1.º Reseña que hará el Decano de los acontecimientos más importantes que durante el año anterior hayan tenido lugar con relación al Colegio.
2.º Informe sobre los acuerdos adoptados por la Asamblea Colegial sobre el Presupuesto del ejercicio y la cuenta general de gastos e ingresos del ejercicio anterior, así como sobre cualquier otro asunto económico.
3.º Lectura, discusión y votación de los asuntos que se consignen en la convocatoria.
4.º Proposiciones.
5.º Ruegos y preguntas.

3. Ezohiko batzar nagusia hogeita hamar egun baliodunen barruan egin beharko da, eskaera aurkezten denetik kontatzen hasita, eta ezin izango da hartan aztertu deialdian adierazitakoak beste gairik.

4. Ezohiko batzar nagusi hori baliozko moduan eratua izateko, bertan egon behar dute boto eskubidea duten elkargokideen erdiek eta beste bat gehiagok, eta botoa modu sekretu, zuzeneko eta pertsonalean adierazi beharko da nahitaez.

**61. artikulua**

1. Elkargokide-kopuruagatik hala komeni zaien elkargoen estatutu partikularrek elkargo-batzar bat ezarri eta arautu ahal izango dute, iraunkor gisa, hartara jarraikortasun handiagoz kontrolatzeko elkargoaren kudeaketa ekonomikoa.

2. Elkargo-batzarreko kide kopurua, gutxienez, gobernu-batzarra osatzen dutenak halako hiru izango da, eta gehienez, halako bost. Kideok gobernu-batzarraren araubide berean eta kargualdi bererako hautatuko dira, baina zerrenda ireki eta ordezkaritza proportzionaleko sistemaren bidez.

3. Elkargo-batzarrak batzar nagusiari esleituriko eskumen berak izango ditu gai ekonomikoetan, eta, bereziki, urteko lehen hiruhilekoan aztertzea eta bozkatzea aurreko ekitaldiko gastu eta diru-sarreren kontu orokorra, eta azken hiruhilekoan, berriz, hurrengo ekitaldirako aurrekontua aztertu eta bozkatzea.

4. Beren estatutu partikularrez elkargo-batzarraren sistema ezartzen duten elkargoek ohiko batzar nagusi bakar bat egingo dute, urteko lehen seihilekoan, gai-zerrenda honekin:

1. Aurreko urtean elkargoaren inguruan izan diren gertaerarik garrantzitsuenen aipamena, dekanoak egina.
2. Elkargo-batzarrak ekitaldiko aurrekontuari buruz eta aurreko ekitaldiko gastu eta diru-sarreren kontu orokorrari buruz hartutako erabakien txostena, eta beste edozein gai ekonomikori buruzkoa.
3. Deialdian adierazten diren gaiak irakurri, eztabaidatu eta bozkatzea.
4. Proposamenak.
5. Galde-eskariak.

## CAPÍTULO IV

## Del régimen económico colegial

### Artículo 62

1. El ejercicio económico de los Colegios y Consejos de Colegios de Abogados coincidirá con el año natural, salvo que sus Estatutos particulares establezcan otra cosa.

2. El funcionamiento económico de los Colegios de Abogados se ajustará al régimen de presupuesto anual y será objeto de una ordenada contabilidad.

3. Todos los colegiados podrán examinar las cuentas del Colegio durante los quince días hábiles anteriores a la fecha de celebración de la Junta General o Asamblea Colegial que haya de aprobarlas.

### Artículo 63

1. Constituyen recursos ordinarios de los Colegios de Abogados:

a) Los rendimientos de cualquier naturaleza que produzcan las actividades, bienes o derechos que integren el patrimonio del Colegio, así como los rendimientos de los fondos depositados en sus cuentas.
b) Las cuotas de incorporación al Colegio.
c) Los derechos que fije la Junta de Gobierno de cada Colegio por expedición de certificaciones.
2. Erregelamendu-proiektua prestatzean, Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak elkargoen gobernu-batzarrei igorriko die, hogeita hamar eguneko epean iradokizunak edo zuzenketak egin ditzaten, gero Kontseilu Nagusiaren osoko bilkurak eztabaidatzeko Erregelamendua onestean.

## VIII. TITULUA

## ELKARGOKIDEEN ERANTZUKIZUN-ARAUBIDEA

### I. KAPITULUA

### Erantzukizun penala eta zibila

**78. artikulua**

1. Abokatuak erantzukizun penalaren mende daude beren lanbideko jardueran delitu eta faltarik egiten badute.

2. Abokatuak, beren jardun profesionalean, erantzukizun zibilaren mende daude dolo edo utzikeriagatik kalte egiten badiete defentsarako fidatu zaizkien interesei; erantzukizun hori legeria arruntaren arabera galdatu ahal izango da justizia-auzitegietan, eta legez ezar daiteke nahitaez segurtatu beharra.

**Artículo 79**

El abogado que reciba el encargo de promover actuaciones de cualquier clase contra otro sobre responsabilidades relacionadas con el ejercicio profesional, deberá informar al Decano del Colegio para que pueda realizar una labor de mediación, si la considera oportuna, aun cuando el incumplimiento de dicho deber no pueda ser disciplinariamente sancionado.

## CAPÍTULO II

## Responsabilidad disciplinaria

### Sección 1.ª

### *Facultades disciplinarias de los Tribunales y Colegios*

**Artículo 80**

1. Los abogados están sujetos a responsabilidad disciplinaria en el caso de infracción de sus deberes profesionales o deontológicos.

2. Las facultades disciplinarias de la autoridad judicial sobre los abogados se ajustarán a lo dispuesto en las Leyes procesales. Las sanciones o correcciones disciplinarias que impongan los Tribunales al abogado se harán constar en el expediente personal de éste siempre que se refieran directamente a normas deontológicas o de conducta que deban observar en su actuación ante la Administración de Justicia.

3. Las sanciones disciplinarias corporativas se harán constar en todo caso en el expediente personal del colegiado.

**Artículo 81**

El Decano y la Junta de Gobierno son competentes para el ejercicio de la jurisdicción disciplinaria, ateniéndose a las siguientes normas:

1. Se extenderá a la sanción de infracción de deberes profesionales o normas éticas de conducta en cuanto afecten a la profesión.

2. Las correcciones que podrán aplicarse son las siguientes:

a) Amonestación privada.

**79. artikulua**

Abokatu batek enkargua jasotzen badu beste baten kontrako zeinahi akzio sustatzeko, jardun profesionalarekin lotutako erantzukizunei buruz, abokatu horrek elkargoko dekanoari jakinarazi beharko dio, egoki baderitzo bitartekaritza-lana egin dezan, nahiz eta eginbehar hori ez betetzea ez daitekeen diziplinaz zehatzekoa izan.

## II. KAPITULUA

## Diziplina-erantzukizuna

### 1. ATALA

### *Auzitegi eta elkargoen diziplina-ahalmenak*

**80. artikulua**

1. Abokatuak diziplina-erantzukizunaren mende daude beren eginbehar profesional edo deontologikoak urratzen badituzte.

2. Agintaritza judizialak abokatuen gain dituen diziplina-ahalmenak lege prozesalek xedatutakoaren araberakoak izango dira. Auzitegiek abokatuari ezartzen dizkioten diziplina-zehapenak edo -zuzenketak jaso egingo dira haren espediente pertsonalean, betiere Justizia Administrazioarekiko jardueran gorde behar dituzten arau deontologikoei edo jokabide-arauei buruzkoak badira.

3. Diziplina-zehapen korporatiboak jaso egingo dira beti elkargokidearen espediente pertsonalean.

**81. artikulua**

Dekanoa eta gobernu-batzarra eskudun dira diziplina-jurisdikzioa egikaritzeko, honako arau hauen arabera:

1. Hartan sartuko da eginbehar profesionalen edo jokabide-arau etikoen urraketak zehatzea lanbideari eragiten dion guztian.

2. Hauek dira aplika daitezkeen zuzenketak:

a) Ohartarazpen pribatua.

b) Apercibimiento por escrito.
c) Suspensión del ejercicio de la abogacía por un plazo no superior a dos años.
d) Expulsión del Colegio.

**Artículo 82**

1. Competen al Consejo General de la Abogacía las facultades disciplinarias en relación con los miembros de las Juntas de Gobierno de los Colegios y, cuando se la atribuyan las disposiciones legales vigentes, también respecto de los miembros de los Consejos de Colegios de las Comunidades Autónomas.

2. Las facultades disciplinarias en relación con los miembros del Consejo General serán competencia del Consejo General, en todo caso.

### Sección 2.ª

### *De las infracciones y sanciones*

**Artículo 83**

Las infracciones que puedan llevar aparejada sanción disciplinaria se clasifican en muy graves, graves y leves.

**Artículo 84**

Son infracciones muy graves:

a) La infracción de las prohibiciones establecidas en el artículo 21 o de las incompatibilidades contenidas en los artículos 22 y 24 del presente Estatuto General.

b) La publicidad de servicios profesionales con incumplimiento de los requisitos especificados en el artículo 25, y cualquier otra infracción que en este Estatuto General tuviere la calificación de infracción muy grave.

c) La comisión de delitos dolosos, en cualquier grado de participación, como consecuencia del ejercicio de la profesión, así como los actos y omisiones que constituyan ofensa grave a la dignidad de la profesión, a las reglas éticas que la gobiernan a los deberes establecidos en el presente Estatuto General.

d) El atentado contra la dignidad u honor de las personas que constituyen la Junta de Gobierno cuando actúen en el ejercicio de sus funciones, y contra los compañeros con ocasión del ejercicio profesional.

b) Idatzizko ohartarazpena.
c) Abokatutzako jarduna geldieran uztea epe batez; gehienez ere, bi urtez.
d) Elkargotik kanporatzea.

**82. artikulua**

1. Abokatutzaren Kontseilu Nagusiari dagozkio elkargoetako gobernu-batzarretako kideei buruzko diziplina-ahalmenak, eta, indarrean diren lege-xedapenek hala esleitzen dizkiotenean, baita autonomia-erkidegoetako elkargo-kontseiluetako kideei buruzkoak ere.

2. Kontseilu Nagusiko kideekiko diziplina-ahalmenak Kontseilu Nagusiaren eskumen izango dira beti.

2. ATALA

*Arau-hausteak eta zehapenak*

**83. artikulua**

Diziplinazko zehapena ekar dezaketen arau-hausteak hirutan sailkatzen dira: oso astunak, astunak eta arinak.

**84. artikulua**

Arau-hauste oso astunak dira:

a) Estatutu Orokor honen 21. artikuluan ezarritako debekuak urratzea edo 22. eta 24. artikuluetan jasotako bateraezintasunak urratzea.

b) Zerbitzu profesionalen publizitatea egitean ez betetzea 25. artikuluan ezarritako betekizunak, eta Estatutu Orokor honetan arau-hauste oso astunaren kalifikazioa duen beste edozein arau-hauste.

c) Dolozko delituak egitea, parte-hartzea edozein gradutakoa dela ere, lanbideko jardunaren ondorioz, eta halaber egintzak eta omisioak egitea laido larri direnak lanbidearen duintasunarentzat, hura gidatzen duten erregela etikoentzat eta Estatutu honetan ezarritako eginbeharrentzat.

d) Atentatua egitea Gobernu Batzarra osatzen duten pertsonen duintasunaren edo ohorearen kontra beren eginkizunetan dihardutela, eta lankideen kontra, jardun profesionala dela eta.

e) La embriaguez o consumo de drogas cuando afecten gravemente al ejercicio de la profesión.

f) La realización de actividades, constitución de asociaciones o pertenencia a éstas, cuando tengan como fines o realicen funciones que sean propias y exclusivas de los Colegios.

g) La comisión de una infracción grave, habiendo sido sancionado por la comisión de otras dos del mismo carácter y cuya responsabilidad no se haya extinguido conforme al artículo 90.

h) El intrusismo profesional y su encubrimiento.

i) La cooperación necesaria del abogado con la empresa o persona a la que preste sus servicios para que se apropien de honorarios profesionales abonados por terceros y que no le hubieren sido previamente satisfechos, cuando conforme a lo dispuesto en el artículo 44.2 tales honorarios correspondan al abogado.

j) La condena de un colegiado en sentencia firme a penas graves conforme al artículo 33.2 del Código Penal.

k) El deliberado y persistente incumplimiento de las normas deontológicas esenciales en el ejercicio de la abogacía.

**Artículo 85**

Son infracciones graves:

a) El incumplimiento grave de las normas estatutarias o de los acuerdos adoptados por los órganos colegiales en el ámbito de su competencia, así como por el reiterado incumplimiento de la obligación de atender a las cargas colegiales previstas en el artículo 34, párrafo a), salvo que constituya infracción de mayor gravedad.

b) El ejercicio profesional en el ámbito de otro Colegio sin la oportuna comunicación de la actuación profesional, lo que habrá de sancionar el Colegio en cuyo ámbito territorial actúe.

c) La falta de respeto, por acción u omisión, a los componentes de la Junta de Gobierno cuando actúen en el ejercicio de sus funciones.

d) Los actos de desconsideración manifiesta hacia los compañeros en el ejercicio de la actividad profesional y la infracción de lo dispuesto en el artículo 26 sobre venia.

e) Mozkortzea edo drogak kontsumitzea, lanbideko jardunean eragin larria dutenean.

f) Elkargoenak eta esklusiboki elkargoenak diren xedeak dituzten edo haien eginkizunak betetzen dituzten jarduerak egitea, elkarteak osatzea edo elkarteetako kide izatea.

g) Arau-hauste astunen bat egitea, aurrez izaera bereko beste batzuengatik zehapena jaso izan duenean eta haren erantzukizuna azkendu gabe dagoenean 90. artikuluaren arabera.

h) Intrusismo profesionala, eta hura estaltzea.

i) Abokatuak laguntza ezinbestekoa ematea, bera zerbitzu egiten ari den enpresa edo pertsonari, hirugarren batzuek ordaindu eta aurrez berari eman ez zaizkion ordainsari profesionalez jabetu daitezen, 44.2 artikuluan xedatutakoaren arabera ordainsari horiek abokatuari dagozkiolarik.

j) Elkargokide bat epai irmoz zigor astunera kondenatua izatea Zigor Kodearen 33.2 artikuluaren arabera.

k) Abokatutzako jardunean funtsezkoak diren arau deontologikoak ez betetzea, nahita eta etengabe.

**85. artikulua**

Arau-hauste astunak dira:

a) Estatutu-arauen edo elkargo-organoek beren eskumenen esparruan hartutako erabakien ez-betetze larria; orobat, behin eta berriz ez betetzea 34. artikuluaren a) paragrafoan xedatutako elkargo-kargei erantzuteko eginbeharra, ez bada behintzat astuntasun handiagoko arau-haustea.

b) Beste elkargo baten lurralde-eremuan lanbidean jardutea jarduera profesionalaren jakinarazpena egin gabe; jardun duen lurralde horretako elkargoak zehatu beharko du hori.

c) Errespetuan huts egitea, egintzaz edo omisioz, Gobernu Batzarreko kideei, beren eginkizunetan dihardutela.

d) Beren lanbideko jardunean lankideekiko begiramen falta nabarmena adierazten duten egintzak, eta 26. artikuluan baimenari buruz xedatutakoa urratzea.

e) La competencia desleal, cuando así haya sido declarada por el órgano competente, y la infracción de lo dispuesto en el artículo 25 sobre publicidad, cuando no constituya infracción muy grave.

f) La habitual y temeraria impugnación de las minutas de los compañeros, así como la reiterada formulación de minutas de honorarios que sean declarados excesivos o indebidos.

g) Los actos y omisiones descritos en los párrafos a), b), c) y d) del artículo anterior, cuando no tuvieren entidad suficiente para ser considerados como muy graves.

h) El ejercicio profesional en situación de embriaguez, o bajo el influjo de drogas tóxicas.

**Artículo 86**

Son infracciones leves:

a) La falta de respeto a los miembros de la Junta de Gobierno en el ejercicio de sus funciones, cuando no constituya infracción muy grave o grave.

b) La negligencia en el cumplimiento de las normas estatutarias.

c) El incumplimiento leve de los deberes que la profesión impone.

d) Los actos enumerados en el artículo anterior cuando no tuviesen entidad suficiente para ser considerados como graves.

**Artículo 87**

1. Las sanciones que pueden imponerse por infracciones muy graves serán las siguientes:

a) Para las de los párrafos b), c), d), e), f), h) e i) del artículo 84, suspensión del ejercicio de la abogacía por un plazo superior a tres meses sin exceder de dos años.
b) Para las de los párrafos a), j) y k) del mismo artículo, expulsión del Colegio.

2. Por infracciones graves podrá imponerse la sanción de suspensión del ejercicio de la abogacía por un plazo no superior a tres meses.

3. Por infracciones leves podrán imponerse las sanciones de amonestación privada o la de apercibimiento por escrito.

e) Lehia desleiala, organo eskudunak hala deklaratu duenean, eta 25. artikuluan publizitateari buruz xedatzen dena urratzea, ez bada behintzat arau-hauste oso astuna.

f) Lankideen minutak modu ohiko eta arduragabean aurkaratzea, eta, halaber, gehiegizko edo desegoki jotako ordainsari-minutak formulatzea behin eta berriz.

g) Aurreko artikuluko a), b), c) eta d) paragrafoetan deskribatutako egintzak eta omisioak, ez badaukate oso astuntzat jotzeko behar adinako munta.

h) Mozkorturik edo droga toxikoen eraginpean jardutea lanbidean.

**86. artikulua**

Arau-hauste arinak dira:

a) Gobernu Batzarreko kideei errespetuan huts egitea beren eginkizunetan dihardutela, ez bada arau-hauste astuna edo oso astuna.

b) Estatutu-arauak betetzean arduragabe izatea.

c) Lanbideak ezartzen dituen eginbeharrak ez betetzea.

d) Aurreko artikuluan adierazitako egintzak, ez badute astuntzat joak izateko munta nahikoa.

**87. artikulua**

1. Arau-hauste oso astunengatik, zehapen hauek ezar daitezke:

a) 84. artikuluko b), c), d), e), f), h) eta i) paragrafoetakoentzat, abokatutzako jarduna geldieran uztea epe batez; gutxienez hiru hilabete, eta gehienez bi urte.
b) Artikulu horretako a), j) eta k) paragrafoetakoentzat, elkargotik kanporatzea.

2. Arau-hauste astunengatik, abokatutzako jarduna epe batez geldieran uzteko zehapena ezar daiteke; gehienez ere, hiru hilabete.

3. Arau-hauste arinengatik, ohartarazpen pribatua edo idatzizko ohartarazpena erabili ahalko dira zehapen gisa.

**Artículo 88**

1. Las infracciones leves se sancionarán por la Junta de Gobierno o por el Decano del Colegio mediante expediente limitado a la audiencia o descargo del inculpado.

2. Las infracciones graves y muy graves se sancionarán por la Junta de Gobierno, tras la apertura del expediente disciplinario, tramitado conforme a lo dispuesto en los Estatutos particulares de los Colegios, que habrán de ajustarse a lo previsto en el artículo 99.2 de este Estatuto General.

3. La Junta de Gobierno y el Decano serán en todo caso los órganos competentes para resolver debiendo corresponder las facultades instructoras a otros que se creen a tal fin.

4. En todo caso los acuerdos de suspensión por más de seis meses o expulsión deberán ser tomados por la Junta de Gobierno mediante votación secreta y con la conformidad de las dos terceras partes de sus componentes. A esta sesión estarán obligados a asistir todos los componentes de la Junta, de modo que el que sin causa justificada no concurriese cesará como miembro de la Junta de Gobierno y no podrá presentarse como candidato en la elección mediante la que se cubra su vacante.

**Artículo 89**

1. Las sanciones disciplinarias se ejecutarán una vez que sean firmes. Podrán ser hechas públicas cuando ganen firmeza.

2. Todas las sanciones tendrán efectos en el ámbito de todos los Colegios de Abogados de España, a cuyo fin el Colegio o Consejo Autonómico que las imponga tendrá preceptivamente que comunicarlas al Consejo General de la Abogacía para que éste pueda informar a los Colegios.

**Artículo 90**

1. La responsabilidad disciplinaria de los colegiados se extingue por el cumplimiento de la sanción, el fallecimiento del colegiado, la prescripción de la falta y la prescripción de la sanción.

2. La baja en el Colegio no extingue la responsabilidad disciplinaria contraída durante el período de alta, sino que se concluirá el procedimiento disciplinario y la sanción quedará en suspenso para ser cumplida si el colegiado causase nuevamente alta en el Colegio.

**88. artikulua**

1. Arau-hauste arinak Gobernu Batzarrak edo elkargoko dekanoak zehatuko dituzte, erruztatuaren entzunaldi edo deskargura mugatuko den espediente baten bitartez.

2. Arau-hauste astunak eta oso astunak Gobernu Batzarrak zehatuko ditu, diziplina-espedientea ireki ondoren, elkargoen estatutu partikularretan xedatutakoaren arabera izapidetua, estatutu horiek bat datozela betiere Estatutu Orokor honen 99.2 artikuluak dioenarekin.

3. Gobernu Batzarra eta dekanoa izango dira beti ebazteko organo eskudunak, eta instrukziorako ahalmenak, berriz, horretarako sortuko diren beste batzuei egokituko zaizkie.

4. Sei hilabete baino gehiagorako geldiera edo kanporatzea dakarten erabakiak, beti, bozketa sekretuan hartu beharko ditu Gobernu Batzarrak, kideen bi herenen adostasunez. Saio horretara joatera beharturik daude Batzarreko kide guztiak; arrazoi justifikaturik izan ez eta joan gabe gelditzen dena kargugabetu egingo da Gobernu Batzarreko kide izatetik, eta ezin izango da hartara aurkeztu hutsunea betetzeko hautaketan.

**89. artikulua**

1. Diziplina-zehapenak irmo izatean betearaziko dira. Publiko egin ahal izango dira irmotasuna hartzen dutenean.

2. Zehapen guztiek Espainiako abokatu-elkargo guztien esparruan izango dituzte ondorioak. Horretarako, ezartzen dituen elkargoak edo autonomia-erkidegoko kontseiluak nahitaez eman beharko die haien berri Abokatutzaren Kontseilu Nagusiari, hark elkargoei jakinaraz diezaien.

**90. artikulua**

1. Abokatuen diziplina-erantzukizuna azkendu egiten da zehapena betetzean, elkargokidea hiltzean, falta preskribatzean eta zehapena preskribatzean.

2. Elkargoan baja emateak ez dakar altan egondako denboran bereganatutako diziplina-erantzukizuna azkentzea; aitzitik, diziplina-prozedura eta zehapena geldieran utziko dira, elkargokidea berriz elkargoan sartzen bada orduan betetzeko.

**Artículo 91**

1. Las infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las graves a los dos años y las leves a los seis meses.

2. El plazo de prescripción comenzará a contarse desde que la infracción se hubiere cometido.

3. La prescripción se interrumpirá por la notificación al colegiado afectado del acuerdo de incoación de información previa a la apertura de expediente disciplinario, reanudándose el cómputo del plazo de prescripción si en los tres meses siguientes no se incoa expediente disciplinario o éste permaneciere paralizado durante más de seis meses, por causa no imputable al colegiado inculpado.

**Artículo 92**

1. Las sanciones impuestas por infracciones muy graves prescribirán a los tres años; las impuestas por infracciones graves, a los dos años; y las impuestas por infracciones leves, a los seis meses.

2. El plazo de prescripción de la sanción por falta de ejecución de la misma comenzará a contar desde el día siguiente a aquel en que haya quedado firme la resolución sancionadora.

3. El plazo de prescripción de la sanción, cuando el sancionado quebrante su cumplimiento, comenzará a contar desde la fecha del quebrantamiento.

**Artículo 93**

1. La anotación de las sanciones en el expediente personal del colegiado se cancelará cuando hayan transcurrido los siguientes plazos, sin que el colegiado hubiere incurrido en nueva responsabilidad disciplinaria: seis meses en caso de sanciones de amonestación privada o apercibimiento escrito; un año en caso de sanción de suspensión no superior a tres meses; tres años en caso de sanción de suspensión superior a tres meses; y cinco años en caso de sanción de expulsión. El plazo de caducidad se contará a partir del día siguiente a aquel en que hubiere quedado cumplida la sanción.

2. La cancelación de la anotación, una vez cumplidos dichos plazos, podrá hacerse de oficio o a petición de los sancionados.

**91. artikulua**

1. Arau-hauste oso astunak hiru urteren buruan preskribatuko dira; astunak, bi urteren buruan; eta arinak, sei hilabeteren buruan.

2. Arau-haustea egin den unetik hasiko da kontatzen preskripzio-epea.

3. Preskripzioa eten egingo da elkargokide ukituari jakinarazten zaionean diziplina-espedientea ireki aurreko informazio-eskaerako erabakia, eta preskripzio-epea berriz hasiko da hurrengo hiru hilabeteetan ez bada diziplina-espedientea irekitzen edo espediente hori geldirik egoten bada sei hilabete baino gehiago, elkargokide erruztatuari ezin egotz dakiokeen arrazoiren batengatik.

**92. artikulua**

1. Arau-hauste oso astunen ondorioz ezarritako zehapenak hiru urteren buruan preskribatuko dira; falta astunen ondorioz ezarritakoak, bi urteren buruan; eta falta arinen ondorioz ezarritakoak, sei hilabeteren buruan.

2. Zehapena ez betearaztearen ondorioz preskribatzeko epea kontatzen, zehapen-ebazpena irmo geratu eta biharamunean hasiko da.

3. Zehapenaren preskripzio-epea kontatzen, zehatuak haren betetzea hausten duenean, hauste hori gertatu den datatik hasiko da.

**93. artikulua**

1. Zehapenak abokatuaren espediente pertsonalean jasotzea ezereztu egingo da honako epe hauek igarotzen direnean elkargokideak berriz diziplina-erantzukizuna dakarren ezer egin ez badu: sei hilabete, ohartarazpen pribatua edo idatzizko ohartarazpena duten zehapenen kasuan; urtebete, hiru hilabeterainoko geldiera dakarten zehapenen kasuan; hiru urte, hiru hilabete baino gehiagoko geldiera-zehapenaren kasuan; eta bost urte, kanporatze-zehapenaren kasuan. Iraungitze-epea kontatzen, zehapena beteta gelditu eta biharamunetik hasiko da.

2. Idatzoharra ezereztu, epea betetakoan, ofizioz edo zehatuen eskariz egin ahal izango da.

## TÍTULO IX

## DEL RÉGIMEN JURÍDICO DE LOS ACUERDOS SOMETIDOS A DERECHO ADMINISTRATIVO Y SU IMPUGNACIÓN

**Artículo 94**

1. Los acuerdos del Consejo General, Consejo de los Colegios de las Comunidades Autónomas, de la Junta General y de la Junta de Gobierno de cada Colegio y las decisiones del Decano y demás miembros de la Junta de Gobierno serán inmediatamente ejecutivos, salvo que el propio acuerdo establezca otra cosa o se trate de materia disciplinaria.

2. Los acuerdos que deban ser notificados personalmente a los colegiados, referidos a cualquier materia incluso la disciplinaria, podrán serlo en el domicilio profesional que tengan comunicado al Colegio, en cumplimiento de la obligación establecida en el párrafo c) del artículo 31 del presente Estatuto General. Si no pudiese ser efectuada la notificación en los términos previstos en los apartados 1 y 2 del artículo 59 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, la entrega podrá realizarla un empleado del Colegio de Abogados, con sujeción a lo señalado en los apartados 2 y 3 de dicho precepto; y si tampoco así pudiese efectuarse la notificación, se entenderá realizada a los quince días de su colocación en el tablón de anuncios del propio Colegio de Abogados, que podrá hacerse en la forma prevista en el artículo 61 de la citada Ley.

**Artículo 95**

1. Son nulos de pleno derecho los actos de los órganos colegiales que incurran en alguno de los supuestos que establece el artículo 62 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2. Son anulables los actos de los órganos colegiales que incurran en los supuestos establecidos en el artículo 63 de la citada Ley.

**Artículo 96**

1. Las personas con interés legítimo podrán formular recurso ante el Consejo General de la Abogacía Española, contra los acuerdos de la Junta de Gobierno y de la Junta General de cualquier Colegio de Abogados, dentro del plazo de un mes desde su publicación o, en su caso, notificación a los colegiados o personas a quienes afecten.

## IX. TITULUA

## ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEAREN MENDE JARRITAKO ERABAKIEN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA HAIEK AURKARATZEA

### 94. artikulua

1. Berehala betearaztekoak dira Kontseilu Nagusiaren erabakiak, autonomia-erkidegoetako elkargo-kontseiluen erabakiak, elkargo bakoitzeko batzar nagusiaren eta gobernu-batzarraren erabakiak, eta dekanoarenak eta gobernu-batzarreko gainerako kideenak, salbu eta erabakiak berak besterik agintzen duenean edo diziplina-gaia denean.

2. Elkargokideei pertsonalki jakinarazi beharreko erabakiak, edozein gairi buruzkoak —diziplina barne—, elkargoari adierazia dioten egoitza profesionalean jakinarazi ahal izango zaizkie, Estatutu Orokor honen 31. artikuluko c) paragrafoan ezarritako eginbeharra betez. Ezin bada jakinarazpena egin Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 59. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan adierazitako moduan, abokatu-elkargoko enplegatu batek egin ahal izango du entrega, manu horren 2. eta 3. zenbakietan adierazitakoaren arabera; eta hala ere ezin bada jakinarazpena egin, egintzat joko da abokatu-elkargoko iragarki-taulan jarri eta hamabost egun igarotzen direnean, han jarri ahal izango baita aipatutako legearen 61. artikuluan adierazitako moduan.

### 95. artikulua

1. Elkargo-organoen erabakiak zuzenbidean deusez izango dira Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 62. artikuluan adierazitako kasuren batean sartzen badira.

2. Deuseztagarriak dira elkargo-organoen erabakiak lege horren 63. artikuluan adierazitako kasuetan sartzen badira.

### 96. artikulua

1. Interes legitimoa duten pertsonek errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren aurrean edozein abokatu-elkargotako gobernu-batzarraren eta batzar nagusien erabakien kontra, haiek argitaratu eta hilabeteko epearen barruan edo, kasua bada, eragiten dieten elkargokide edo pertsonei jakinarazi eta hilabeteko epean.

2. El recurso será presentado ante la Junta de Gobierno que dictó el acuerdo, que deberá elevarlo, con sus antecedentes y el informe que proceda, al Consejo General dentro de los quince días siguientes a la fecha de presentación, salvo que de oficio reponga su propio acuerdo en dicho plazo. El Consejo General, previos los informes que estime pertinentes, deberá dictar resolución expresa dentro de los tres meses siguientes a su interposición, entendiéndose que en caso de silencio queda denegado. El recurrente podrá solicitar la suspensión del acuerdo recurrido y la Comisión Permanente del Consejo General podrá acordarla o denegarla motivadamente.

3. Los acuerdos de los Consejos de Colegios de las Comunidades Autónomas solamente serán recurribles ante el Consejo General cuando así lo dispongan sus propios Estatutos, en cuyo caso se aplicará el mismo procedimiento expresado en los apartados precedentes de este artículo.

**Artículo 97**

1. La Junta de Gobierno también podrá recurrir los acuerdos de la Junta General ante el Consejo General de la Abogacía Española, en el plazo de un mes desde su adopción.

2. Si la Junta de Gobierno entendiese que el acuerdo recurrido es nulo de pleno derecho o gravemente perjudicial para los intereses del Colegio podrá solicitar la suspensión del acuerdo recurrido y la Comisión Permanente del Consejo General podrá acordarla o denegarla motivadamente.

**Artículo 98**

Los actos emanados de las Juntas Generales, y de las Juntas de Gobierno de los Colegios, del Consejo General y de los Consejos de Colegios de Comunidades Autónomas, en cuanto estén sujetos al Derecho Administrativo, una vez agotados los recursos corporativos, serán directamente recurribles ante la jurisdicción contencioso-administrativa.

**Artículo 99**

1. Los plazos de este Estatuto General expresados en días se entenderán referidos a días hábiles, salvo que expresamente se diga otra cosa.

2. La Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común se aplicará a cuantos actos de los órganos colegiales supongan ejercicio de potestades administrativas. En todo caso, dicha Ley tendrá carácter supletorio para lo no previsto en este Estatuto General.

2. Erabakia hartu zuen gobernu-batzarraren aurka jarriko da errekurtsoa, eta hark, aurrekariekin eta dagozkion txostenekin batera, Kontseilu Nagusiari igorri beharko dio, aurkezpen-datatik aurrerako hilabeteko epean, non eta ez duen ofizioz bere erabakia berraztertzen epe horren barruan. Kontseilu Nagusiak, egoki deritzon txostenak egin ondoren, ebazpen espresua eman beharko du errekurtsoa jarri ondorengo hiru hilabeteen barruan; isiltasunaren kasuan, ukatu dela ulertuko da. Errekurritzaileak aukera du errekurritutako erabakia geldieran utz dadin eskatzeko, eta Kontseilu Nagusiko Batzorde Iraunkorrak erabaki dezake onartzea edo ukatzea, arrazoiturik.

3. Autonomia-erkidegoetako elkargo-kontseiluen erabakiak Kontseilu Nagusiaren aurrean errekurritzekoak izango dira baldin eta hala ezartzen badute beren estatutuek; kasu horretan, artikulu honen aurreko zenbakietan adierazitako prozedura bera aplikatuko da.

**97. artikulua**

1. Gobernu-batzarrak ere errekurritu ahal izango ditu batzar nagusiaren erabakiak Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren aurrean, erabakiak hartu ondorengo hilabeteko epean.

2. Gobernu Batzarrak irizten badio erabakia zuzenbidean deuseza dela edo elkargoaren interesentzako larriki kaltegarria dela, eskatu ahal izango du errekurritutako erabakia geldieran utz dadila, eta Kontseilu Nagusiko Batzorde Iraunkorrak hala erabaki edo ukatu ahal izango du, arrazoituz.

**98. artikulua**

Batzar Nagusien egintzak, eta elkargoetako gobernu-batzarrenak, Kontseilu Nagusiarenak eta autonomia-erkidegoetako elkargo-kontseiluenak, Administrazio Zuzenbidearen mende dauden ber, errekurtso korporatiboak amaitutakoan, zuzenean errekurritu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

**99. artikulua**

1. Estatutu Orokor honetako epeak egun baliodunetan emanak daudela jo behar da, espresuki besterik esaten ez bada.

2. Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea aplikatuko zaie elkargo-organoen egintzei administrazio-ahalmenak egikaritzea dakarten guztietan. Lege horrek ordeztaile izaera izango du Estatutu Orokor honetan adierazi gabeko guztirako.

## DISPOSICIÓN TRANSITORIA PRIMERA

1. El Consejo General de la Abogacía Española en el plazo de un año aprobará su propio Reglamento de régimen interior.

2. Los Colegios de Abogados, que aplicarán el presente Estatuto General desde su entrada en vigor, deberán adaptar sus correspondientes Estatutos particulares en el plazo de un año desde que ésta se produzca, cuyos proyectos podrán ser aprobados por la Junta General extraordinaria en primera convocatoria, sin necesidad del quórum especial establecido en el artículo 59 de este Estatuto General, ni de cualquier otro requisito especial establecido en el Estatuto particular a modificar, remitiéndose al Consejo General para su aprobación.

## DISPOSICIÓN TRANSITORIA SEGUNDA

Las situaciones creadas y los derechos adquiridos con arreglo al régimen anteriormente en vigor serán respetados.

## DISPOSICIÓN TRANSITORIA TERCERA

Las Normas de Composición y Funcionamiento del Consejo General de la Abogacía Española mantendrán su vigencia hasta tanto se apruebe el Reglamento de régimen interior del propio Consejo General.

## LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA

1. Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak, urtebeteko epean, bere barne-araubideko erregelamendua onetsiko du.

2. Abokatu-elkargoek indarrean sartu orduko aplikatuko dute Estatutu Orokor hau, eta beren estatutu partikularrak egokitu beharko dituzte urtebeteko epean, hau indarrean sartzen denetik hasita. Estatutu horien proiektuak ezohiko batzar nagusi batean onetsi ahal izango dira lehen deialdian, Estatutu Orokorraren 59. artikuluan ezarritako quorum bereziaren beharrik gabe eta aldatu beharreko estatutu partikularrean ezarritako beste ezein betekizun berezi gabe, eta Kontseilu Nagusira igorriko da onesteko.

## BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Aurrez indarrean zen araubidearen arabera sortutako egoerak eta eskuratutako eskubideak errespetatu egingo dira.

## HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren osaera- eta funtzionamendu-arauak indarrean izango dira Kontseilu Nagusiak bere barne-araubideko erregelamendua onesten duen bitartean.

# Lexikoa

## a

**abokatu, letradu** abogado, letrado
**abokatuaren eginbehar orokor** deberes generales del abogado
**abokatuaren funtsezko eginbehar** deber fundamental del abogado
**abokatu-elkargo, abokatuen elkargo** colegio de abogados
**abokatu-elkargoen kontseilu** consejo de colegios de abogados
**abokatutza** abogacía
**Abokatutzaren Mutualitate Orokor** Mutualidad General de la Abogacía
**abstentzio-betebehar** obligación de abstención
**adiskidetze- edo arbitraje-bide** vías de conciliación o arbitraje
**administrazio-kudeatzaile** gestor administrativo
**aholkularitza juridiko** asesoramiento y consejo jurídico
**antzinatasun handieneko kide** miembros más antiguos
**arau deontologiko** normas deontológicas
**arau-hauste arin** infracción leve
**arau-hauste astun** infracción grave
**arau-hauste oso astun** infracción muy grave
**askatasun, independentzia eta ospe profesional** libertad, independencia y prestigio profesionales
**autodefentsarako eskubide** derecho de autodefensa
**auzialdi** instancia

## b

**barne-araubideko erregelamendu** reglamento de régimen interior
**barruti judizial** partido judicial
**bateraezintasun** incompatibilidad
**bateraezintasun-kausa** causa de incompatibilidad
**berreskatu** repetir
**bitartekaritza-lan** labor de mediación
**bulego kolektibo** despacho colectivo
**bulego profesional** despacho profesional

## d

**debeku** prohibición
**defentsari** defensor
**dekano** decano
**desgaikuntza** inhabilitación
**diziplina-araubide** régimen disciplinario
**diziplina-erantzukizun** responsabilidad disciplinaria
**diziplina-ahal** facultad disciplinaria
**diziplina-zehapen** sanción disciplinaria

**doako laguntza juridiko** asistencia jurídica gratuita
**doako laguntza juridikorako eskubide** derecho a la asistencia jurídica gratuita

## e

**egoitza profesional** domicilio profesional
**ekitaldi solemne** acto solemne
**elkargoaren arbitraje** arbitraje colegial
**elkargo-batzar iraunkor** asamblea colegial permanente
**elkargokide** colegiado
**elkargokidearen espediente pertsonal** expediente personal del colegiado
**elkargokide-zenbaki** número de colegiado
**elkargoko diziplina-araubide** régimen disciplinario colegial
**entzunaldi** audiencia
**entzunaldi publiko** audiencia pública
**erantzukizun penal** responsabilidad penal
**erantzukizun zibil** responsabilidad civil
**errekusazio-eskubide** derecho de recusación
**eskariak egiteko eskubide** derecho de petición
**eskubideak birgaitu** rehabilitar derechos
**esku-hartze profesional** intervención profesional
**eskumen esklusibo** competencia exclusiva
**eskumen esklusibo eta baztertzaile** competencia exclusiva y excluyente
**eskumutur-parpaila** vuelillo
**eskuordetu** delegar
**Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusi** Consejo General de la Abogacía Española
**etengabeko lanbide-prestakuntza** formación profesional permanente
**ez diharduen elkargokide** colegiado no ejerciente
**ezintasun** incapacidad
**ezohiko batzar nagusi** junta general extraordinaria

## g

**gaikuntza** habilitación
**gehiengo indartu** mayoría reforzada
**gehiengo soil** mayoría simple
**geldiera** suspensión
**gobernu-batzar** junta de gobierno

## i

**ikustaldi edo epaiketa-ekitaldi** acto de la vista o juicio
**interesdunak uko egite** renuncia del interesado
**intrusismo profesional** intrusismo profesional
**izendapen** nombramiento

## j

**jaraunspen** herencia
**jardun profesional** ejercicio profesional
**jurisdikzio** jurisdicción
**jurisdikzio-organo** órgano jurisdiccional

## k

**kalte bidegabe** lesión injusta
**kargualdi** mandato
**kontrol deontologiko** control deontológico
**kontu-ikuskaritza** auditoría de cuentas

## l

**laguntzaile** colaborador
**lan-harremanetako gradudun** graduado social
**lankidetza multiprofesional** colaboración multiprofesional
**lansari** retribución
**lan-zuzenbideko araubide** régimen de derecho laboral
**legezko eta estatutuzko arau** normas legales y estatutarias
**lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegi** juzgado de primera instancia e instrucción
**lehia desleial** competencia desleal
**lehiaren defentsa** defensa de la competencia
**letradu, abokatu** letrado, abogado

## m

**mugape judizial** demarcación judicial

## n

**negozio-agente** agente de negocios

## o

**ofiziozko abokatu** abogado de oficio
**ohiko batzar nagusi** junta general ordinaria
**ohorezko elkargokide** colegiado de honor
**ohorezko trataera** consideración honorífica
**ordainsari profesional** honorarios profesionales
**ordezkaritza** representación

## p

**pasante** pasante
**prokuradore** procurador
**publizitate duin, leial eta egiati** publicidad digna, leal y veraz

## s

**sekretu profesional** secreto profesional

## t

**toga** toga

## z

**zerbitzuen publizitate** publicidad de los servicios
**zin edo promes** juramento o promesa
**zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko** Estado social y democrático de derecho
**Zuzenbideko lizentziadun** licenciado en Derecho

# Léxico

## a

**abogacía** abokatutza
**abogado de oficio** ofiziozko abokatu
**abogado, letrado** abokatu, letradu
**acto de la vista o juicio** ikustaldi edo epaiketa-ekitaldi
**acto solemne** ekitaldi solemne
**agente de negocios** negozio-agente
**arbitraje colegial** elkargoaren arbitraje
**asamblea colegial permanente** elkargo-batzar iraunkor
**asesoramiento y consejo jurídico** aholkularitza juridiko
**asistencia jurídica gratuita** doako laguntza juridiko
**audiencia** entzunaldi
**audiencia pública** entzunaldi publiko
**auditoría de cuentas** kontu-ikuskaritza

## c

**causa de incompatibilidad** bateraezintasun-kausa
**colaboración multiprofesional** lankidetza multiprofesional
**colaborador** laguntzaile
**colegiado** elkargokide
**colegiado de honor** ohorezko elkargokide
**colegiado no ejerciente** ez dihardauen elkargokide
**colegios de abogados** abokatu-elkargo, abokatuen elkargo
**competencia desleal** lehia desleial
**competencia exclusiva** eskumen esklusibo
**competencia exclusiva y excluyente** eskumen esklusiboa eta baztertzaile
**Consejo General de la Abogacía Española** Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusi
**consejos de colegios de abogados** abokatu-elkargoen kontseilu
**consideración honorífica** ohorezko trataera
**control deontológico** kontrol deontologiko

## d

**deber fundamental del abogado** abokatuaren funtsezko eginbehar
**deberes generales del abogado** abokatuaren eginbehar orokor
**decano** dekano
**defensa de la competencia** lehiaren defentsa
**defensor** defentsari
**delegar** eskuordetu
**demarcación judicial** mugape judizial
**derecho a la asistencia jurídica gratuita** doako laguntza juridikorako eskubide

**derecho de autodefensa** autodefentsarako eskubide
**derecho de petición** eskariak egiteko eskubide
**derecho de recusación** errekusazio-eskubide
**despacho colectivo** bulego kolektibo
**despacho profesional** bulego profesional
**domicilio profesional** egoitza profesional

## e

**ejercicio profesional** jardun profesional
**Estado social y democrático de derecho** zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko
**expediente personal del colegiado** elkargokidearen espediente pertsonal

## f

**facultad disciplinaria** diziplina-ahal
**formación profesional permanente** etengabeko lanbide-prestakuntza

## g

**gestor administrativo** administrazio-kudeatzaile
**graduado social** lan-harremanetako gradudun

## h

**habilitación** gaikuntza
**herencia** jaraunspen
**honorarios profesionales** ordainsari profesional

## i

**incapacidad** ezintasun
**incompatibilidad** bateraezintasun
**infracción grave** arau-hauste astun
**infracción leve** arau-hauste arin
**infracción muy grave** arau-hauste oso astun
**inhabilitación** desgaikuntza
**instancia** auzialdi
**intervención profesional** esku-hartze profesional
**intrusismo profesional** intrusismo profesional

## j

**junta de gobierno** gobernu-batzar
**junta general extraordinaria** ezohiko batzar nagusi
**junta general ordinaria** ohiko batzar nagusi
**juramento o promesa** zin edo promes
**jurisdicción** jurisdikzio
**juzgado de primera instancia e instrucción** lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegi

## l

**labor de mediación** bitartekaritza-lan
**lesión injusta** kalte bidegabe
**letrado, abogado** letradu, abokatu
**libertad, independencia y prestigio profesionales** askatasun, independentzia eta ospe profesional
**licenciado en Derecho** Zuzenbideko lizentziadun

## m

**mandato** kargualdi
**mayoría reforzada** gehiengo indartu
**mayoría simple** gehiengo soil
**miembros más antiguos** antzinatasun handieneko kide
**Mutualidad General de la Abogacía** Abokatutzaren Mutualitate Orokor

## n

**nombramiento** izendapen
**normas deontológicas** arau deontologiko
**normas legales y estatutarias** legezko eta estatutuzko arau
**número de colegiado** elkargokide-zenbaki

## o

**obligación de abstención** abstentzio-betebehar
**órgano jurisdiccional** jurisdikzio-organo

## p

**partido judicial** barruti judizial
**pasante** pasante
**procurador** prokuradore
**prohibición** debeku
**publicidad de los servicios** zerbitzuen publizitate
**publicidad digna, leal y veraz** publizitate duin, leial eta egiati

## r

**régimen de derecho laboral** lan-zuzenbideko araubide
**régimen disciplinario** diziplina-araubide
**régimen disciplinario colegial** elkargoko diziplina-araubide
**reglamentos de régimen interior** barne-araubideko erregelamendu
**rehabilitar derechos** eskubideak birgaitu
**renuncia del interesado** interesdunak uko egite
**repetir** berreskatu
**representación** ordezkaritza
**responsabilidad civil** erantzukizun zibil
**responsabilidad disciplinaria** diziplina-erantzukizun
**responsabilidad penal** erantzukizun penal
**retribución** lansari

## s

**sanción disciplinaria** diziplina-zehapen
**secreto profesional** sekretu profesional
**suspensión** geldiera

## t

**toga** toga

## v

**vías de conciliación o arbitraje** adiskidetze- edo arbitraje-bide
**vuelillo** eskumutur-parpaila

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea